

2020ko ABENDUA

OSASUN LARRIALDIAN
KALE-EGOERAKO BIZTANLEAK:
HAUTEMANDAKO BEHARRAK ETA HORIEI
ARRETA EMATEKO ESKAKIZUNAK

GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA
SOS RACISMO GIPUZKOA

Ikuskailea:

Gizarte Psikologia eta Zientzien Metodologia Departamentua.
Euskal Herriko Unibertsitatea

Ikerketa-diseinua:

Maitane Arnoso Martínez
Itxaso Agirre Barandiaran
Karina Marambio

Datu-bilketa:

Itxaso Agirre Barandiaran
Irene Ibarra, Maria Etxeberria
Marta Ferreiro
Galia Mokhtar

Datuen azterketa eta txostena idaztea:

Karina Marambio
Marta Ferreiro

Finantzatzaileak:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; Eusko Jaurlaritza
Ikuskapena, Inbertsioak eta Gizarte Ekimena; Gizarte Politika Saila;
Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

I. AURKEZPENA	5
2. AURREKARI TEORIKOAK ETA TESTUINGURUA	8
2.1. Etxegabetasuna edo kale-egoera	9
2.2. Etxegabetasuna eta horren ezaugarriak Espainian eta Euskadin	9
2.3. Etxegabetasuna eta bakarrik dauden gazte etorkinak	11
2.4. Udal-errolaren garrantzia	13
2.5. Etxegabetasuna eta horren ondorioak	14
2.6. Etxegabetasuna Euskadiko konfinamenduan	15
3. AZTERKETA KUANTITATIBOA: GAZTE ETORKINAK KALE-EGOERAN	18
3.1. HELBURUAK	19
3.2. METODOA	21
3.2.1. Tresna	21
3.2.2. Lagina eta prozedura	26
3.2.3. Emaizten azterketa	26
3.2.4. Parte-hartzaileen profil soziodemografikoa	27
EMAITZAK	29
3.3. Alderdi orokorrak	29
3.3.1. Egoera administratiboa	29
3.3.2. Erroldatzea	30
3.3.3. Lan ordaindua egitea	32
3.3.4. Kale-egoera	33
3.3.5. Laguntzak: jatorria eta zenbatekoak	34
3.3.6. Osasun-egoera eta substantziak hartzea	37
3.3.7. Arazo-motak eta maiztasuna poliziarekin edo segurtasun-indarrekin	38
3.4. Alderdi psikosozialak	41
3.4.1. Familiaren laguntza	41
3.4.2. Adiskideen laguntza	42
3.4.3. Gizarteratzea	43
3.4.4. Bakardade-sentsazioa	44
3.4.5. Baztertze-sentimenduak	45
3.4.6. Isolatze-sentimenduak	45
3.4.7. Autoestimua	46
3.4.8. Prozesu pertsonalaren balorazioa, herrialdera iristen direnetik	46
3.4.9. Konfinamendu aurreko egoera pertsonalaren balorazioa	47
3.4.10. Egungo egoeraren balorazio orokorra	48

3.5. Etxegabetasun biktimenzako baliabideen erabilera	49
3.5.1. Kanean dauden pertsonentzako gaitutako baliabideak	49
3.5.2. Baliabideen erabilera	52
3.5.3. Erabilitako baliabideen balorazioa	53
3.6. Baliabideen beharrak eta arreta	55
3.6.1. Oinarrizko behar ez-bermatuak	55
3.6.2. Laguntzarik eza	57
3.6.3. Laguntza administratiboa eta prestakuntzarik eza	58
3.7. Baliabideen eraginkortasun eta efikaziari buruzko pertzepzioa	59
3.7.1. Baliabideekiko komunikazioa	59
3.7.2. Baliabideen alderdi positiboak	60
3.7.3. Baliabideen alderdi negatiboak	61
3.8. Neska-mutil gazteen egoera konfinamenduan	62
3.8.1. Konfinatu aurreko ostatua	62
3.8.2. Osasun-larrialdiko ostatua	63
3.8.3. Herritarren gitzespina eta poliziaren jazarpena kanean egoteagatik	64
3.8.4. Osasun-arreta konfinamenduan	66
3.8.5. Aterpetxeen barruko egoera konfinamenduan	67
3.8.6. Harreman-sareak eta/edo lagunak areagotzea baliabidean	68
3.8.7. Emozio positiboak konfinamenduan	68
3.8.8. Konfinamenduko beldurrak	70
3.8.9. Gaur egungo sentipenak	71
3.8.10. Etorkizuneko ikuspegia	72
4. AZTERKETA KUALITATIBOA: ADITUEN IKUSPEGIA	73
4.1. HELBURUAK	74
4.2. METODOA	75
4.2.1. Parte-hartzaileak	75
4.2.2. Lagina eta prozedura	75
4.2.3. Datuen azterketa	76
EMAITZAK	77
4.3. Gazte etorkinen egoitza-esklusioaren ikuspegi orokorra	77
4.3.1. Konfinamenduaren egoeraren balorazioa	87
4.3.2. Konfinatu ondoko balorazioa eta proposamenak	93
5. ONDORIOAK	98
5.1. Aspectos generales	99
5.2. Aspectos psicosociales	101
5.3. Utilización de los recursos habilitados para personas víctimas de sinhogarismo	102
5.4. Situación de los/as jóvenes durante el confinamiento	103
6. ERREFERENTZIAK	105

I

AURKEZPENA

Covid-19aren pandemiak munduko biztanle gehienak konfinatu ditu 2020ko martxotik aurrera. Derrigorrezko konfinamendu-egoera horrek nabarmen utzi du kale-egoeran dauden pertsonen muturreko zaurgarritasuna, pertsona horiek ezin baitira konfinatu non eginik ez dutelako. Horixe da gure populazioaren portzentaje baten egoera negargarria; alarma-egoera ezartzean etxean geratzeko obligazioarekin eta kalean ez egoteko poliziaren eskakizunekin, noraezean zebiltzan oso ondo jakin gabe nora bideratu euren urratsak, ez bait zuten ez lo egiteko lekurik, ez egunez egoteko lekurik, ezta janari-plater bat ere, ez elektrizitaterik euren mugikorrek kargatzeko eta gutxieneko higiena izateko, hau da egunero dutxa bat eta euren arropak garbitzeko lekua. Egoera honek agerian utzi du kale-egoeran dauden gazte etorkinen errealitatea. Etxegabetasunaren biktima diren pertsonen bideratutako baliabideak berez mintzagai dugun kolektibo honentzat ez badira ere, ez dute beste aukerarik eta haiengana jotzen dute azken aukera gisa. Hirugarren sektoreak sarri salatu duen egoera izanik ere, alarma-egoerak eta konfinamenduak ikusarazi dute Gipuzkoan kale-egoeran dauden gazte etorkinen babesgabetasun larria.

Txosten hau alarma-egoeraren hasieran, 2020ko martxoan, pausoak ematen hasi zen lana da. SOS Arrazakeriatik ikusten dugu, Hiritarron Harrera Sarearekin – Donostiako Herritarren Harrera Sarea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologiaren Departamentuarekin batera, herritar horiek elkartuta izateak eurekin lan egiteko aukera ematen digula; euren profilak eta euren uneko osasun-egoera ezagutzeko eta etorkizunarekiko duten arrisku-pertzepzioa ezagutzeko aukera, baita dituzten laguntza-sareak ere, euren beharrak eta behar horiei hobeto egokitutako esku-hartzeak sorrarazteko funtsezko gai-multzo bat. Gainera, osasun-arriskua dela eta sartuta egon garen zaurgarritasun eta esposizio sentsazioa kontuan hartuta, txosten honek jasotzen ditu era berean ikerlan-interbentzio izan zen horretan gazteen testigantzak, non haiei laguntzerik izan genuen haiei aktiboki entzunez eta senti dezaketen kutsatze-beldur eta etorkizuneko ziurgabetasunaren aurrean eta kutsatze-belduraren aurrean kontentzioa izanez.

Txosten hau marko teoriko batekin hasten da. Horren aurrekariak, zientifikoek, ahalbidetuko digute etxegabeen kolektiboa kokatzea, haien profil psikosozialak eta haien ezauzgarriak, oro har, ezagutzea. Era zehatzagoan, Gipuzkoan kale-egoeran dauden gazte etorkinei buruz arituko gara. Txostenak bi azterketa osagarri ditu. Lehena saiatzen da kale-egoeran dauden gazte etorkinen profil psikosozialetan sakontzen, baita euren uneko osasun-egoera ezagutzen eta etorkizunarekiko duten arrisku-pertzepzioa ezagutzen ere, baita dituzten laguntza-sareak, euren beharrak eta ordutik aurrera eurekin lan egitea ahalbidetuko duten funtsezko gai-multzo bat ezagutzen ere saiatzen da. Aukera aprobetxatu dugu eurentzat jarritako baliabideak nola jasotzen dituzten arakatzeko ere. Baliabide eske joaten direnean nola sentitzen diren jakiteko, ea baliagarri zaizkien, erabiltzaile gisa zer hobetuko luketen eta abar jakiteko. Pentsatzeko gai-sorta bat, eta hori positiboa da, eskaintzen zaizkien laguntza horietan eraginkorrakoak izateko betiere.

Bigarren azterketa lehenaren ikuspegia zabaltzen saiatu zen. Ikuspegi kualitatibo batetik elkarrizketa sakonak egin zitzaizkien pertsona adituei; gazte etorkinen errealitate soziala, euren beharrak eta euren eskubide eta betebeharrak ezagutzen dituzten pertsona adituei, hain zuzen ere. Ikuspegi honek ahalbidetu zigun neska-mutil gazteek emandako informazioa triangulatzea eta lehen azterketaren datu estatistikoei zentzu sakonagoa ematea.

Elkarrizketak hiru ardatz nagusitan zentratu ziren: kale-egoeran dauden neska-mutil gazte etorkinen egoeraren ikuspegi orokorra, pandemia-garaian erabiltzaileei inplementatutako baliabideen balorazioa eta kolektiboaren etorkizun-aukeren inguruko balorazioa eta euren egoera hobetzeko egin daitezkeen balizko ekintzak.

Espero dugu txosten honetan bildutako informazioa baliagarria izatea gogoeta egiteko, Gipuzkoan bizi garen pertsona guztientzat lurralde bateratuago, inklusiboago eta justuagoa egiteko lanean inplikaturik dauden pertsona eta erakunde guztiek gogoeta egiteko, hain zuzen.

Jarraian, aurrekari teoriko garrantzitsuenak azalduko dira, kale-egoeran dauden probintziako neska-mutil gazte etorkinek jasaten duten bazterketa soziala eta testuingurua deskribatzen dutenak.

2

AURREKARI
TEORIKOAK
ETA TESTUINGURUA

2.1. Etxegabetasuna edo kale-egoera

Federación Europea de Asociaciones nacionales (FEANTSA) etxegabeekin lan egiten duen erakundearen arabera, pertsona etxegabe batek "ezin du ostatu egoki bat, bere egoera pertsonalera egokitua, iraunkorra eta bizikidetzarako esparru egonkorra eskainiko diona, eskuratu edo mantendu, dela arrazoi ekonomikoengatik, dela beste gizarte-oztopo batzuegatik, dela bizitza autonomoa izateko zailtasun pertsonalengatik". Etxegabetasunean egiturazko, gizarteko eta norbanakoaren alderdiek parte hartzen dute, etxebizitza eskuratzea eta lana izatea eragozten diena jasaten duten pertsonen. Arrazoi ekonomikoak, politikoak eta sozialak direla medio, etxegabetasuna gizarte-bazterketaren adierazpen muturrekoena da. Bizitza duina izatea ahalbidetzen duten oinarritzko baliabide eta beharretara sarbiderik ez izatea ez parte hartzea eta dinamika sozialik ez izatea dakar berekin (Matulic, 2013; Gabàs, 2003). Hori horrela izanik, zaila izango da pertsona batek marjinaziorik ez jasatea pertsona horren behar ekonomikoak, lanekoak, heziketakoak, soziosanitarioak, bizilekuari dagozkionak, harremanetakoak eta herritar gisa parte hartzeak beteta ez badaude.

Etxegabetasunean eragin handia duen faktoreetako bat immigrazioa da. Gizarte-bazterketaren arrazoiak ikertzen dituzten hainbat azterlanek (Raya, 2007; Subirats, Gomà eta Brugué, 2005) immigrazioa hartzen dute, edo bazterketaren hainbat faktoreen zeharkako ardatz gisa edo bere horretan egiturazko fenomeno gisa. Aldagai etnikoa da erabakigarriena gizarte-bazterketaren eragina jasateko probabilitateak sozialki banatzeko orduan. Hori egungo datuekin berresten da; Espainian, etxerik gabeko biztanleen erdia baino gehiago atzerritarra da (Navarro-Lashayas, 2018).

2.2. Etxegabetasuna eta horren ezaugarriak Espainian eta Euskadin

Espainian 40.000 pertsona daude etxerik gabe. Biztanleria hori hirietan biltzen da, bertan kontzentratzen direlako lan-aukera gehienak eta kolektibo horrentzako zerbitzu eta baliabide gehien ere bertan daudelako. Madril edo Bilbo bezalako hirietan biltzen da etxegabetasunaren biktima diren pertsona-kopuru handiena, eta 2018tik aurrera %24 hazi da kopuru hori, 2016an bildutako datuekin alderatuta (SOS Arrazakeria, 2020). EAPNk (European Anti Poverty Network; Pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea, 2019) elaboratutako 9 zenbakidun txostenak dioenez 12.188.288 pertsonak jasaten zuten pobrezia-arriskua edo/eta gizarte-bazterketaren arriskua 2018an; zifra hori Espainiako biztanleriaren %26,1 da.

Kale Gorrian azterlanaren arabera, EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko azterlanaren arabera, 2018ko urriko gau batean egindako zenbaketan oinarrituta, 3.007 pertsona detektatu ziren bizitegi-bazterketa egoera larrian. Pertsona horietatik guztietatik, %17,8 kalean aurkitu ziren, eta gainerakoak etxegabeentzat prestatutako baliabideetan zeuden. 2016ko datuekin alderatuta, 1.000 pertsona gehiago detektatu ziren. Dena den, aipatu behar dira azterketa horren mugak, zifra horiek ez

baitira inondik inora zehatzak, zeren lan horretan, lehenik, zenbaketa gau batean soilik egiten da eta, bigarren, ez ditu kontuan hartzen aldizka etxe okupatuetan edo adiskide baten edo ezagun baten etxean egon litezkeen pertsonak. Hala ere, azterlan horrek argi eta garbi erakusten du Euskadin kale-egoeran bizi diren pertsonen hazkundera 2018tik aurrera.

Gainera, etxebizitza eskuratzea eskubide unibertsal gisa eta ongizatearen osagai nagusi gisa (hezkuntzarekin, osasunarekin eta lanarekin batera) ez da hartu betebeharrak gisa Espainiako botere publikoen aldetik, Emakundek EAEko bizitegi-bazterketa larriari buruz egindako txostenaren arabera (2016). Euskadiko kaleetan bizitzen den benetako arazoa izan arren, ez dago behar adinako politikarik kale-egoera bera eta horren ondorioak desagerrarazteko.

Etxegabetasuna fenomeno konplexua eta dinamikoa da, pertsonen profila aldatuz joan dena eta, urteek aurrera egin ahala, handituz joan dena, bai Espainian eta bai Euskadin. Gaur egun, bi pertsona-talde handi detekta daitezke (Aierdi, Oleaga, Moreno eta Alonso de Armiño, 2009). Alde batetik, biztanleria autoktonoa, zaharragoa eta osasun-narriadura handikoa, baliabide-zirkuituan ibilbide luzea egin eta narriadura pertsonal handia duten pertsonak izanik gero eta zaharragoak eta kronifikatuagoak dira. Beste alde batetik, atzeritarrez osatutako taldea, osasun-egoera onean dauden gazteak dira, batez beste 26 urte dituztenak, gehien-gehienak gizonezkoak eta magrebtarrak (Moreno eta Fernández, 2019).

Garrantzitsua da ulertzea, printzipioz, ez dutela osatzen gizarte-bazterketa klasikoaren zantzuak dituen kolektibo bat, ez dutela eurek erabakitzen kalean egotea, eta, beraz, arreta eskatzen dutela baliabide ekonomikoen bidez edo bizitoki-eskaera bidez. Hala ere, gazte horientzako baliabide egokirik ez izateak, etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak erabiltzea dakar berekin; berez ez daude kolektibo horrentzat pentsatuta, baina ez dago beste baliabiderik. Kale-egoeran dauden gazte etorkinek, gehienak familiako inor gabe dauden gazteek, migrazio- eta integrazio-proiektu bat dute gure gizartean. Proiektu hori ezerezean geratzen da bidean, migrazio-sisteman eragozpen ugari daudelako, ezin baitute lan egin, eta beren profilerako egokia den beste laguntzarik gabe uzten baitituzte euren egoera administratiboa arautu arte, kasurik onenean, 3 urte.

Esan beharra dago beste talde batzuk ere badaudela kale-egoeran, hala nola emakumeak, familiak eta asiloa eskatzen duten guraso bakarreko familiak. Hala ere, ez da nahitaez lortzen gizarte-bazterketa larrian dauden emakumeengana iristea; kasu batzuetan, lanean ari diren etxeetan, praktikan, konfinatuta daudelako, hala nola etxeke barne-langileen kasuan; beste kasu batzuetan, oso narriadura handiak izateagatik edo/eta prostituzioan egoteagatik. Horrela, etxegabetasunaren biktima diren emakumeen ikusezintasun-fenomenoaren aurrean gaude (Moreno eta Fernández, 2019), egoera konplexuagoetan nolabait ezkutatuta dagoen fenomenoaren aurrean, hain zuzen ere.

Hala ere, gazte etorkinen taldea da nabarmenena eta gorantz doana. Hazkunde hori krisi ekonomikoaren ondorengo egoerarekin batera gertatu da: egoera horren ondorioz 2017tik aurrera, etxerik gabeko pertsonen profila aldatu egin da, eta are gehiago 2018tik aurrera. Gazteak lan egiteko asmo argiarekin iristen dira, baina Atzerritarren Legeak ez die uzten lanpostu bat eskuratzen, harik eta egiaztatu arte gutxienez 3 urte daramatela Espainian bizitzen. Zentzuzkoa da pentsatzea denbora horretan gazte horiek lanerako prestatu beharko lirатеkeela. Hala ere, horretarako prestatutako baliabideak ez dira nahikoak, eta muturreko zaugarritasun-egoeran eta gizarte-bazterketaren arriskuan erortzeko zorian bizi dira.

2.3. Etxegabetasuna eta bakarrik dauden gazte etorkinak

Gazte horiek abiatzen duten ibilbidea ulertzeko, kontuan hartu behar dira arrisku-faktore batzuk, hala nola migrazio-abiapuntuko egoera, migrazio-prozesua eta harreara-testuinguruan eta nerabezaroan agertzen diren aukerak edo zailtasunak, bizi-etapa hori saihestezina baita eta hor sortzen da prozedura (Manzani eta Arnoso, 2014). Hori dela eta, berariazko ezaugarri eta beharrak dituen kolektiboa da eta ez du zerikusirik etxegabetasun-biktima diren beste kolektibo batzuekin.

Normalean, bakarrik dauden gazte atzerritarrak gehienetan adin txikiko izanik etorri zirenak dira eta, Espainiara iristean, foru-administrazio batzuek tutelatuta dituzte 18 urte bete arte. Ondoren, kalean lo egin behar izan dute, emantzipazio-pisuren bat edo haientzat gaitutako baliabideren bat eskuratzeko zain. Egoera hori dramatismo handikoa da; izan ere, gazteak egun batetik bestera (18 urte betetzen dituzten egunean) Estatuak babestuta eta tutelatuta egotetik inolako babesik gabe eta heldu baten erreferentziarik gabe egotera pasatzen dira, gizarte-laguntzaren inolako sarerik gabe geratzen dira. Horrek estres handia eragiten die, eta ondorioak ditu euren osasun mentalean eta fisikoan; izan ere, 18 urte bete arren, aldaketa-fase batean sartuta, euren nortasuna eta identitatea garatzen ari diren nerabeak izaten jarraitzen dute.

Badira, halaber, hemezortzi urte beteta iristen diren gazteak ere. Horiek zuzenean sartzen dira pertsona etxegabeentzat prestatuko zerbitzuetara, bai beren sorterritik bertatik, Atzerritarrentzako Zentro batetik pasatuta, edo beste autonomia-erkidego bateko zentro tutelaturen batetik. Izan ere, migrazio-sareak daude, testuinguruari buruzko eta dauden baliabideei buruzko informazioa eskaintzen dutenak eta helmugan harrera gisa ere jokatzeko dutenak, migrazio-fluxu orokorren barruan oso arrunta eta ohikoa dena, bestalde.

Neska-mutil hauek, oro har, osasun ona dute, eta gehien-gehienek borondate argia dute trebatzeko eta gizarteratze-ibilbide egokia egiteko, nahiz eta batzuetan bizi-testuinguru benetan konplexu eta zailtan egon. Hizkuntza ikasteak eta trebakuntzak funtsezko egin-kizuna dute, eta horrek zentzua ematen dio euren gizarteratze-prozesuari. Gainera, kasu batzuetan, trebakuntza ezinbestekoa izan daiteke beste laguntza-motaren bat lortzeko.

Hala ere, prozesu horretan aurrera jarraitzea, kasu askotan, jasanezin bihurtzen da, prozesuak bere horretan aurkako ezaugarriak dituelako, eta pertsonak estigmatizazio bikoitzari aurre egin behar diolako: pertsona migratzaileak izatea eta kale-egoeran egotea. Estigmatizazio horrek eragina du, halaber, euren burua ikusteko moduan, euren autoestimuan, euren identitate pertsonal eta sozialean, eta oztopo bat gehiago izan daiteke eurak gizartean eta komunitatean txertatzeko (Navarro, 2018).

Bestalde, autoestimua (edo autoestimua maila tipikoa) izango da neska-mutil gazteek beren burua onartzeko orduan izan ditzaketen kontingentzien arabera eta kontingentzia horiek asetzeko zirkunstantziak eraikitzearen duten joeraren arabera. Autoestimua gorabeherak izango ditu bizi-egoera garrantzitsuetako zirkunstantzietan gizabanakoak esperientzatzen dituen arrakastei eta porrotei emandako erantzunen arabera (Crocker eta Wolfe, 2001). Autoestimua ohiko maila jakin bat lortu ondoren, horrek ondorio batzuk izango ditu pertsonak egoerei aurre egiteko orduan dituen estilo kognitibo eta portaerazkoetan. Zehazki, nerabeen autoestimua altua eguneroko estresaren pertzepzio ez hain negatiboarekin lotzen da (Dumont eta Provost, 1999). Autoestimua handia duten gazteek esperientzia positibo gehiago dituztela ere azaltzen dute eta, aldi berean, esperientzia negatiboari aurre egiteko orduan eraginkorrak dira eta porrotaren ondoren erantzun moldakorrak sortzen dituztela (Dodgson eta Wood, 1998; Tashakkori, Thompson, Wade eta Valente, 1990). Horrela, esperientzia negatiboak modu funtzionalagoan interpretatzen dituzte, eta zeregin batean izandako porrotean norberaren trebetasunaren garrantzia txikiagotu egiten dute (Di Paula eta Campbell, 2002). Feedback negatiboaren aurrean ere ez dira hain arduratsuek (Campbell eta Fahey, 1985; Jussim, Yen eta Aiello, 1995).

Hala, neska-mutil gazte batzuek beren identitatea eraikitzean edo historiako garai batzuetan, nerabezaroko krisia ez da asko nabaritzen, inolako zaratarik gabe igarotzen da, baina beste batzuetan oso nabarmena da, aldi kritikotzat hartzen da argi eta garbi, "bigarren jaiotza" moduko baten antzera hartzen da. Identitatea eraikitzeak alderdi negatiboren bat izan lezake, batzuetan bizitza osoan zehar erabateko identitatearen alderdi menderakaitz gisa iraun lezakeena. Desiragarria dena da identitate negatiboa nagusi ez bihurtzea. Identitate negatiboa da subjektuak ez-desiragarritzat barneratu behar izan zituen identifikazio eta identitate-atal haien guztien batura (Ives, 2014).

Arreta bereziko etapa ebolutibo horren eta babes-sistemaren ahultasunaren baturak gazteek beren egoera kronifikatzeko arriskua dakar berekin. Baliabide batzuen eskaera erabat gaituta egoteak edo kalean lo egiteak, eta horrek berekin dakartzan arrisku guztiek, zailtasunak sorrarazten dizkiete eta ez diete uzten beren ibilbidea normaltasunez egiten. Horrek frustrazioa eta motibazioa galtzea eragiten die, eta kasu batzuetan pertsona bera hondatzea ekar lezake, bai patologia mentalak agertzen direlako edo/eta hainbat substantzia, batzuetan gehiegi, hartzen dituztelako (Moreno eta Fernández, 2019).

Gainera, 18 urtetik gorako gazteentzat zeuden emantzipazio-programak murriztu egin ziren 2007-2008ko atzeraldi ekonomikoan, gazte atzerritar gutxiago iristen baitziren eta ez baitziren hainbeste plaza behar. Baina 2017az geroztik, areagotu egin zen bakarrik zetozen gazteen kopurua, eta programa txiki horiek ez dira gai, 18 urte bete ondoren

tutoretzapean egoteari uzten dioten pertsona guztiei erantzuna emateko, ezin baitute emantzipazio-etxebizitza bat eskuratu, eta horrek laguntzen nolabaiteko buxadura eragiten du. Horrela, adin nagusitasuna betetzea gazteentzako zaugarritasun handiko une kritiko bihurtzen da, eta babes-sistema oso egonkor batetik babesik gabeko beste batera igarotzen dira, eta hor bazterketa-arriskua nabarmen handitzen da.

2.4. Udal-errolaren garrantzia

Udal-errola da pertsona etorkinek gure gizartean integratzeko prozesua hasteko gaitu beharreko oztopo administratiboetako bat. Udal-errola erregistro administratibo bat da eta bertan udalerrri bateko bizilagunak ageri dira. Espainian bizi den pertsona oro hor izena ematera behartuta dago. Erregistro horrek balio du udalerriko biztanleria zehazteko, pertsonari bizilagun-izaera emateko behin izena eman ondoren, eta ohiko bizilekua eta helbidea akreditatzeko. Erroldak funtsezko funtzio estatistikoa betetzen badu udalerrri batean bizi diren pertsonak modu fidagarrian ezagutzeko, bistan da informazio horrek bere horretan duen garrantzia, esate baterako, egoera irregularrean dauden atzerritarren presentzia ezagutzeko, beste inongo erregistrotan agertzen ez diren atzerritarrena (Corella, 2004). Horrez gain, oso tresna erabilgarria da zerbitzu publikoak planifikatzeko.

Nabarmentzekoa da pertsona atzerritarra erroldatzen ez bada, Atzerritarren Legearen arabera, pertsona hori ez dela herrialdeko egoiliar gisa agertzen eta, erregulazioa eta lan bat lortu ahal izateko lege horren arabera bete beharreko baldintza, hau da lurraldean gutxienez 3 urtez bizitzea, ezin duela bete. Egoera irregularrean dagoen pertsona etorkin batentzat, beraz, errolda da etorkizunean gizarteratzeko oinarriak ezartzen dituen. Gainera, inklusioarekin eta ongizatearekin erlazionatutako zenbait eskubide eskuratzeko sarbidea ematen du, eta hori gabe ezin da prestaziorik eskatu. Hori horrela izanik, ezin da ukatu erroldaren, gizarte-zerbitzuen eta izaera sozialeko beste prestazio lokal batzuen arteko harreman estua. Horrela, ukazina da udalerriek jokatzen duten paper garrantzitsua integrazio horren eraginkortasunean. Hala ere, kalean egoera irregularrean dauden etorkinak erroldatzeko protokolorik ez dago Gipuzkoako udalerrri guztietan, eta halakorik bada, gizarte-zerbitzuetako txandako gizarte-laguntzailearen irizpidearen araberakoa izango da.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, bakarrik dauden eta sarerik ez duten gazte etorkinentzat erroldatzea bera ez da hain erraza, eta esan behar da, kasu askotan, prestazioak eskuratu ahal izateko, beharrezkoa dela gutxienez hiru hilabete erroldatuta egotea eta alokairu-kontratua izatea (Navarro, 2013). EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen buruzko IV. Azterketak (2018) egoera horren berri ematen du. Gipuzkoan, kale-egoeran dauden pertsona atzerritarren %25 soilik dago erroldatuta eta %30 soilik EAEn.

2.5. Etxegabetasuna eta horren ondorioak

Etixerik gabeko pertsonen zailtasun asko dituzte; babes hartzeko bizitegirik ez izateaz gain, pertsona horien bizitzako esparru guztiak gurutzatzen dituen hainbat konplexutasun dakartza berekin egoera horrek. Asko dira ase gabeko premiak eta horrek zaildu egiten du bai beren ongizate fisikoa eta bai mentala. Alderdi ekonomikoa da kolektibo horren zailtasun handienetakoa bat. Pertsona horietako gehienek ondoko diru-iturriak dituzte: prestazio publikoak (%32), kalean jasotako dirua (%9,5), lagunena (%8,3) eta GKEena (%7,5). Nabarmentzekoa da soilik Diru-sarrerak bermatzeko errenta, pertsonen %11,4k jasotzen baitu (INE-EIN, 2012). Era berean, arazo ekonomikoa larriagotu egiten da krisi ekonomikoaren boladetan, eta sektore ahulentzako laguntza-baliabideen eskaera areagotu egingo da (Morales, 2010 SOS Arrazakeria-n, 2020).

Etxegabetasunaren biktima diren pertsonen beste zailtasun bat da, ezen babesguterik ez dutenez, erasoak izateko joera handiagoa dutela, hala nola eraso fisikoak, sexualak, irainak edo mehatxuak. INE-EINeko datuen arabera, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berritasun Ministerioak bildutako arabera, erasoaren kopurua nabarmen igo da azken urteotan (SOS Arrazakeria, 2020).

Muduko Medikuek erakundeak pertsona etxegabeei buruz emandako datuen arabera, gainerako herritarrek baino bizi-itxaropen baxuagoa dute, 20 urte baxuagoa, eta gainera 2 eta 50 aldiz arazo fisiko gehiago dituzte. Espainiari dagokionez, eta osasun mentaleko arazoei dagokienez, ikusten da pertsonen %4 eta %13 bitartean dutela eskizofrenia eta %2 eta %20 bitartean dagoela depresio larriaren pertsonen kopurua. Gainera, erroldaturik ez dauden kasuetan, ez dute lehen mailako arretaren zerbitzurik, eta muturreko egoeretan eta larrialdietako zerbitzuetara soilik joaten dira (SOS Arrazakeria, 2020).

Kolektibo honek jasaten duen gizarte-bazterketa da aurrean dituzten zailtasunen haria, euren bizitzako esparru guztiak gurutzatzen dituen. Gainera, euren egoeraren estigma eraman behar dute eta euren errealitateak berekin dakarren gizarte-diskriminazioari aurre egin. Horrela, ez dute euren eskubideez gozaten, beste edozein herritarrek bezala (Veca, 1990). Gazte etorkinen kasuan, bi bereizkeriari egin behar diote aurre: etorkinak izateagatik eta kalean egoteagatik. Etxebizitza duin eta egokirik ez izateak, alde fisikotik eta ekonomikotik begiratuta, hezkuntza-garapenean aurrera egitea eragozten die; haien ikasketa-maila, beraz, jaitxi egiten da, eta, horregatik lan-merkatuan sartzea ere atzeratu egiten du. Kalean bizitzeak eragin handia du pertsonaren osasun mentalean (Navarro-Lashayas, 2018), lehenik antsietate eta depresio gisa agertzen dena. Gainera, pertsona horiek zenbait arrisku izaten dituzte: gizarte-loturak kaskartzekoa, migrazio-proiektuaren porrot-sentimenduak eta gizarte-estigma izatekoa, deshumanizazio-sentimenduak eta gizartean pertsona duina ez izatearen pentsamenduak izatekoa; alienazioa, tristura, pentsamendu errepikakorak, suminkortasuna, identitate pertsonalaren aldaketak, norberaren bizitzaren gaineko kontrol eza, berehalakotasunaren denbora-ikuspegia, anomia eta etsipena ere izan ditzakete (Navarro-Lashayas, 2014).

Gainera, egiteak eta edukitzeak arrakasta duenaren filosofian murgilduta bizi gara, eta ez dugu bestelako balio-sistematik, gizarteratze-proiektu benetan solidario eta bidezko bihurtuko den sistema falta zaigu. Sistema horrek eragina izan lezake neska-mutil gaz-

teek aurrekari gisa erabiltzen dituzten giza portaera nagusien ereduetan. Beren nortasuna eraikitzeko prozesuan dauden nerabeek, portaeraren balizko ondorioen azterketa kritikoa egiteko behar adinako heldutasun eta baliabide kognitiborik gabe, kasu askotan ez dute onartzen ez frustrazioa ez plazeraren atzerapena eta hori da indarkeriazko jokabide askoren jatorria (De la iglesia, 2009).

Horregatik guztiagatik, gizarte gisa, beharrezko tresnak eman behar dizkiegu gure neska-mutil gazte guztiei, haien jatorria edozein dela ere. Gure gizartean txertatutako herri-tarrak izateko, lan egin eta bizimodua irabazteko aukera izan dezatela. Giza baliabideak dira eta gure esku dago gure gizartearen parte izateko aukera ematea.

2.6. Etxegabetasuna Euskadiko konfinamenduan

2020ko martxoaren 14an, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoeraren adierazpenarekin ezarritako neurriek espazio publiko eta pribatu gehienak ixtea ekarri zuten, horrela pertsonen kontzentrazioa saihesteko (463/2020 Errege Dekretua). Itxiera horrek ondorio negatiboak izan zituen kalean bizi direnen eguneroko bizitzan. Horien artean, liburutegiak edo kultura-etxeak ixtea, esate baterako, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa -Tabakalera-, Donostian, ixteak pertsona askorentzat egunean zehar bertan babesteko, wifi-sarera konektatzeko, euren mugikorrek kargatzeko eta eguraldi txarretik babesteko espaziorik gabe geratzea ekarri zuen berekin. Era berean, horrek esan nahi du etxerik gabeko pertsonak denbora gehiago emango dutela kalean. Polizia-agenteeek patruilatzen duten kalea da eta, sarritan, espazio publikoan ibiltzeagatik edo haien arteko distantzia ez mantentzeagatik isuna jartzeko mehatxua egiten diete agente horiek. Egoera horietan urratzen da gehien haien duintasun-eskubidea (Hiritarron Sarea, 2020). Aurrekoaz gain, jantoki sozialak bertan behera uztea, Donostiako Laguntze Etxea esaterako, Elikagai Bankua ixtea edo Bokatas elkarteak Madrilen zeraman jarduera etetea, pertsona asko eguneroko bazkari eta elikagaiarik gabe geratzearen adibide dira; horri erantsi behar zaio komun publikoak ixtea eta horrek berekin dakarren higienerik eza.

Bestalde, prestakuntza-jarduera oro bertan behera uzteak lan-munduan sartzeko hezkuntza-prozesu garrantzitsuak etetea ekarri zuen, eta, gainera, egunez egin beharreko jarduera hori gabe geratzea. Horri gehitu behar zaio beharrezko ez diren lanpostuak eta jarduera komertzial oro (elikagaiena izan ezik) eteteak berekin ekarri zuela pertsona etxegabe zenbaitek egiten zituzten arautu gabeko lantxoak galtzea. Pertsona horien akonpainamendu eta jarraipenera zuzendutako baliabide askok ere beren funtzioak murriztu egin behar izan dituzte, eta horrela pertsona asko erreferentzia gabe geratu dira. Egoera horrek pertsona horien ongizate psikosoziala zaildu egiten du. Izan ere, pertsona horiek nahiko kaltetuta daude alarma-egoeraren aurretik duten egoera pertsonalaren ondorioz, eta euren egoera are zailagoa da pandemiak dakarren tentsio, segurtasun-falta eta bakardadeagatik.

Aterperik ez duenari aterpea ematea baino haratago doa erronka: instalazioak behar dira, baita osasun-langileak eta antolaketa ere; elikagaiak, botikak eta abar ere bai. Izan

ere, alarma-egoera ezartzearen ondoren, Donostiako Udalak Gaueko Aterpea itxi egin zuen; gaua igarotzeko lekua, gosaria eta norberaren higiena eskaintzen dituen oinarritzko gizarte-baliabidea da; gomendatzen zen gutxieneko segurtasun-distantzia mantentzeko kondiziorik ez zeukalako itxi zen, eta baliabide hori erabiltzen zuten pertsonak Abegi Etxera eta Ondarretako udal-aterpetxera bideratu zituen (Hiritarron Harrera Sarea, 2020). Hiru egun geroago, Ondarretako aterpetxea (La Sirena) eraldatu egin zen, 45 pertsona inguruztat, eta Diputazioak Zarautzen, Orion, Hondarribian eta Seguran dauzkan lau aterpetxeak Gizarte Politiketako Sailaren eta osasun-agintarien esku jarri zituen (Diario Vasco, 2020-03-18). Hotzaldik eta Aterpek, Caritasek kudeatzen dituen bi zentro hauek ordura arte guztira 64 pertsonari ematen zieten gaueko ostata; aldi baterako jendea egun osoz hartzen hasi ziren eta, kutsatze gehiago ez izateko, elikagai-eskaerak eta osasun arloko eskaerak artatzen zituzten bertan. Geroago, Atano III.a pilotalekua prestatu zen, 80 bat lagunentzat. Horietatik 39 beste baliabide batera, UBAko aterpetxera, bideratu ziren (Hiritarron Harrera Sarea, 2020).

Hala, martxoaren 23an hauek ziren Donostian artatutako pertsonak: Udalak kudeatutako zentroetan, 161 (45 La Sirenan; 29 Abegi Etxean; 87 Atanon, hauetako 39 UBAko aterpetxera bideratuta); 64 Caritasek kudeatutako zentroetan (42 Hotzaldin eta 22 Aterpen); kopuru horiei gehitu behar zaizkie bertan behera utzitako lantegietan, erai-kin hutsetan, bizitegi kaskarretan edo elikagai-baliabiderik gabeko udal-laguntzadun geletan bizi direnak, edota elikagai-laguntzetara jo behar duten familiak. Guztira, 340 pertsona inguru (Hiritarron Harrera Sarea, 2020). Egunak igaro ahala, Caritasek kudeatutako baliabideetan ostatu hartzen zuten pertsona batzuk beste aterpetxe batzuetara banatu behar izan ziren; apirilaren 6an, beraz, 6 pertsona zeuden Aterpen eta 16 Hotzaldin. Baliabide horietako lantaldeei dagokienez, hasiera batean Udalak pertsona boluntarioen laguntza jaso zuen, eta pixkana-pixkana hezkuntza-, gizarte- eta osasun-arloetako profesionalak kontratatu zituen. Hala ere, esan behar da neurri horiek ez zirela nahikoak izan, pertsona etxegabe guztiei ez zieten eta erantzuna eman. Ez ziren ezta eraginkorrak izan ere; izan ere, ostatu batzuetan garbitasuna ez zegoen bermatuta, elkar kutsatzea saihesteko ezta segurtasun-distantzia minimoa ere; eta ez zegoen isolatzeko espaziorik, beharrezkoa gertatuz gero (SOS Arrazakeria, 2020).

Egun batzuk geroago, Diputazioak baliabide gehiago eskatu zizkion Udalari, baina bere gain hartu gabe edo beste irtenbiderik eskaini gabe. Zeren bazeuden baliabideak prestatzen jarraitzeko: beste askoren artean, Uliako aterpetxea, Mariaren Bihotza ikastola, Miracruz kaleko San Pio X.a eraikina eta Ategorrietako galtzada zaharrekoa (Hiritarron Harrera Sarea, 2020).

Kasu askotan elikadura eta higiena erantzun ez zitzaienten oinarritzko beharrak izan ziren. Alarma-egoeraren aurretik, pertsona etxegabeak udal-dutxetara sar zitezkeen, baina horiek ere itxi egin zituzten. Zenbait elkarte, hala nola Hiritarron Harrera Sarea, saiatu ziren behar horren atal bat betetzen, minidutxa eramangarri baten bidez, "adabaki izatera ere iristen ez dena" (Hiritarron Harrera Sarea, 2020). Elikadura izan zen oinarritzko beste gabezia bat, guztiz beharrezkoa, Elikagaien Bankua eta gisako baliabideak ixtearen ondorioz kaltetua gertatu zena, Bankuak eta gisakoek behar horri erantzuten baitzioten (Hiritarron Harrera Sarea, 2020). Gainera, etxerik gabeko pertsonen beste familia batzuk ere gehitu behar zaizkie, ohiko diru-sarrerarik gabe geratzean gose-

egoeran daudenak eta baliabide horiek behar dituztenak. Badira pertsonak gaua igarotzeko lekua dutenak, baina zailtasunak dituztenak higiene eta janariari dagokienean. Donostian, beraz, Hiritarron Harrera Sareak hartu zuen bere gain eguneroko janaria jartzea.

Azkenik, esan behar da badirela pertsonak prestatutako oinarrizko baliabideen bidez artatu direnak, baina bada pertsonen ehuneko bat etxe okupatuetan edo bizitegi kaskarretan bizi direnak eta baliabide horiek izan ez dituztenak. Alarma-egoeraren ondorioz diru-sarrerarik gabe geratu diren pertsonak izan litezke edo alarma aurretik zuten egoera ekonomikoak leku horiek okupatzera eramán zituen pertsonak eta euren egoera ere oso zaila da.

Alarma-egoerak eta konfinatzeko inposizioak pertsona etxegabeak bistaratu egin ditu, auzotarrentzat ageriago geratu direlako. Egoera horrek erreakzio arrazista eta xenofoboak eragin ditu auzotar batzuen aldetik, kale hutsetan noraezean zebiltzan pertsonak salatu egiten baitzituzten, edo zerbait oihukatzen zieten kalean ibil ez zitezen. Zenbait pertsonaren erreakzio bortitzek pertsona etxegabeen egunerokotasunari eta indarkeriari buruzko gogoeta gitera eramaten gaituzte.

Baina, era berean, herritarren eta gizarte-mugimenduen aldetik jardunbide egokiak ere ikusi ditugu: errealitate hori ikusaraztea eta salatzea, batetik, eta alarma-egoeran pertsona etxegabeek dituzten oinarrizko eta areagoko beharrei erantzuteko jarduera zehatzak, bestetik. Besteak beste, Modahara Taldeak edo Hiritarron Harrera Sareak publikoki salatu zituzten indarkeriazko ekintzak, erakundeen laguntza-hutsuneak eta presio politikoa eragin zuten kolektibo horrentzako baliabide gehiago antolatzeko eta lortzeko, izan ere, berez jasaten duen gizarte-bazterketak gogor jotzen baitu talde hori.

Bestalde, solidaritate-ekintzak ere berehala agertu ziren. Euskal Autonomia Erkidegoan badira nabarmentzeko borondatezko ekimenak, Bilboko Otxarkoaga auzokoa, esate baterako. Han gazte magrebtar batzuek adineko pertsoneri janaria banatu zieten euren etxeetara, dohainik (eldiario.es, 2020ko martxoaren 31). Donostian, Hiritarron Harrera Sareak alarma-egoeraren adierazpenetik bertatik janaria erosi eta banatzeko zerbitzua antolatu zuen, pertsona etxegabeentzat, bizitegi kaskarretan bizi direnentzat edo etxebizitzetan bizita ere, alarma-egoeraren ondorioz arazo ekonomiko larriak dituzten pertsona edo familientzat. Hiritarron Harrera Sarearen borondatezko lanari beste ekimen batzuk batzen zaizkio, hala nola Alzako (Donostia) parrokoarena, egunero kordinatu egiten baitu behar duten pertsona guztientzat (Noticias de Gipuzkoa, 2020ko apirilaren 7a).

Ostalaritzako laguntzari dagokionez, nabarmentzekoak dira, beste askoren artean, Donostian Gandariasek emandako janari kordinatua, Va Benek emandako opilak eta Pandora, Platero eta Antzara taberneak eta Oialume Zar sagardotegiak egiten duten janari-eskaintza. Hotzari dagokionean, mantak banatu ziren, bereziki Itsas Salbamendu Humanitarioak emandakoak (Hiritarron Harrera Sarea, 2020). Bestelako ekimen batzuk ere agertu ziren; esaterako, Akab taldeak (Askatasun Kolektiboetarako Abokatuak) poliziarekin arazoak izanez gero, aholkularitza juridikoa eskaini zuen, eta Hegaz / Kolore Guztiak taldeak laguntza psikologia eskaini zuen telefonoz edo bide telematikoz.

3

AZTERKETA KUANTITATIBOA

Gazte etorkinak
kale-egoeran

3.1.

| HELBURUAK |

H.O. 1. | COVID-19aren larrialdian konfinatu ahal izateko prestatutako zentroetan aterpetutako biztanleen profil psikosoziala ezagutzea

- | Identifikatu populazioaren jatorria, adina, generoa, egoera administratiboa, egoera zibila, egoera soziolaborala eta laguntzak edo prestazio sozialak jasotzen dituen edo ez, kalean daraman denbora eta abar.
- | Ezaugutu populazio honen gizarte- eta familia-laguntza eta gizarteratze-maila; horretarako, aztertu haien harreman-sareak, familiarekin eta lagunekin edo gertuko pertsonekin duten harremana.
- | Ezagutu kale-egoera dela eta, isolamendu-sentsaziorik edo bazterkeriarik duten.

H.O. 2. | Egungo osasun-egoera, sintomatologia eta osasun-beharrak aztertzea, generoaren eta adinaren arabera

- | Identifikatu ea gaixotasun fisikoren bat edo gaixotasun mentalen bat duten, aldez aurretik diagnostikatua.
- | Botikarik hartzen ari diren edo botikarik behar duten jakin.
- | Aztertu Covid-19aren sintomatologia espezifikoa, arrisku-jokabideak eta substantzien kontsumoa.
- | Aztertu osasun-beharrak, generoaren, adinaren eta jasotako osasun-laguntzaren arabera.

H.O. 3. | Ebaluatu ezarritako baliabideen gogobetetze-maila, bizitegi-bazterkeria jasaten duen populazioaren oinarritzko beharrak asetzeko ezarritako baliabideena

- | Ezagutu instalazioekiko (komunak, oheak, espazioa), janariarekiko, jaso-tako tratuarekiko, jardueretikiko eta kideetikiko harremanen gogobetetze-maila.
- | Identifikatu pertsona erabiltzaileen alderdi positiboak eta hobetu daitezkeenak.
- | Aztertu generoaren, adinaren, jatorriaren (edo beste aldagai soziodemografikoen) ondoriozko behar zehatzik dagoen edo ez, esku-hartzea hobeto doitzeko kontuan hartzeko aldagaiak izan litezkeenak.

H.O. 4. | Ezagutu bizitegi-bazterkeria jasaten duen populazioaren egoera emozionala Covid-19arekiko

- | Aztertu haiek izandako osasun-mehatxuaren maila, haien bizi-beldurrak, euren artean kutsatzeko beldurrak eta euren familiartekoak eta maite dituztenak kutsatzeko beldurrak zeintzuk diren ikusiz.
- | Aztertu haiek izandako mehatxu sozioekonomikoaren maila eta etorkizunari buruzko beldurra bazterkeriari dagokionean.
- | Baloratu kolektibo horrek izan dezakeen antsietate egoera edo arreta espezifikoen beharra; ikusi baita egoerari eta konfinamendu komunitarioari aurre egiteko baliagarri izaten ari diren euren estrategia propioak ere.

H.O. 5. | Identifikatu behin konfinamendua amaituta ibilbideak diseinatzen lagun dezaketen gizarteratze-beharrak

- | Ezagutu populazio horren ibilbide sozialak, euren arrakastak eta porrotak; baita larrialdi ondorengo etorkizunari aurre egiteko tresna psikosozialak ere.
- | Identifikatu etorkizun hurbilari dagokionez hautemandako euren itxaropenak eta beharrak.
- | Ebaluatu esku-hartze sozialerako aukerak, larrialdiaren kudeaketan parte hartzen duten eragile sozial eta instituzionalekin koordinatuta betiere.

3.2.

| M E T O D O A |

3.2.1. | Tresna

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Psikologia karrerako Gizarte Psikologia Saileko ikertzaileek, SOS Arrazakeriarekin batera, egin zuten ebaluazio-tresna azterketa honen helburuetarako. Galdera-sorta aldagai hauek osatzen dute.

Alderdi orokorrak: egoera administratiboa, ekonomikoa, erroldatzea, bizitokiaren arloa eta bizitoki-baliabideak

- | Egoera administratiboa (*irregularra, aldi baterako baimena, iraupen luzeko baimena, nazionalitate espainola, komunitatekoa*).
- | Erroldatze-egoera (*BAI/EZ*).
- | Erroldatze-lekua (*erantzun irekia*).
- | Erroldatu zenetik igaro den denbora (*erantzun irekia*).
- | Erroldatu ahal izateko izan duen zailtasun-maila (*oso zaila, zaila, oso erraza*).
- | Diru-sarrerak (*BAI/EZ*).
- | Diru-sarriren jatorria (*neure lana, administrazio publikoaren prestazio ekonomikoa, gizarte-erakundea (Zein?: erantzun irekia), ezagun baten laguntza, nire familiaren laguntza, beste zenbait*).
- | Gizarte-erakunde batetik edo Administrazioetik jasotako laguntza (*erantzun irekia*).
- | Osasun-larrialdiaren aurretik lan ordaindua izatea (*BAI/EZ*).
- | Kale-egoeran daraman denbora (*erantzun irekia*).
- | Konfinamendu aurretik izandako ostatua (*kalea, espazio okupatua, norbaitek utzitako pisua, aterpetxea, Diputazioaren bizitoki-baliabidea, alokairuan hartutako gela*).

| Osasun-larrialdian izandako ostatua (*kalea, espazio okupatua, norbaitek utzitako pisua, Diputazioaren bizitoki-baliabidea, alokairuan hartutako gela, aterpetxea (Atano, La Sirena, Uba, Abegi, Orio, Zarautz, Hondarribia, Tolosa, Errenteria).*

| Egonaldia lehendik bizitoki-baliabide batean (BAI/EZ).

| Zein bizitoki-baliabidetan (erantzun irekia).

| Bizitoki horretan emandako denbora.

| Egonaldiaren iraupena baliabidean (erantzun irekia).

Osasun-egoera eta substantziak kontsumitzea

| Diagnostikatutako gaixotasun fisikoa edo mentala (BAI/EZ).

| Zein gaixotasun (erantzun irekia).

| Medikazioa (BAI/EZ).

| Zein medikazio (erantzun irekia).

| Substantziak kontsumitzea (BAI/EZ).

| Zein substantzia (erantzun irekia).

| Kontsumo-maiztasuna (*inoiz ez, noizbehinka, oso maiz*).

Laguntza eta gizarteratzea

| Familiarekiko harreana (BAI/EZ).

| Adiskide euskal herritarak edo espainolak (BAI/EZ).

| Zenbat adiskide euskal herritar edo espainol dira konfiantzazkoak (erantzun irekia).

| Zenbat adiskide euskal herritar edo espainol dira konfiantzazkoak (erantzun irekia).

| Laguntza-pertzepzioa (*lagunen aldetiko laguntza, familiaren aldetiko laguntza*) (Erantzun-formatua: 1 batere ez eta 4 handia).

| Baztertze-egoera (*konpainiarik eza, baztertze-sentimendua, bakartuta egotearen sentimendua*) (Erantzun-formatua: 1 inoiz ez eta 4 beti).

- | Autoestimua (“nolakoa naizen gustuko dut, gustura nago neure buruarekin, pertsona balio-
tsua naizela uste dut, munduari ekarpenak egiteko gauzak ditudala uste dut, gizarteari eskain-
tzeko gauza garrantzitsuak ditut”) (Erantzun-formatua: 1 erabat desados eta 4 erabat ados).
- | Gizarteratzea (gizarte honetan integratuta sentitzen naiz, gizarte honetako kide naizela sen-
titzen dut, gizarteak diskriminatuta sentitzen naiz, jendea oro har atsegina dela uste dut, gustura
sentitzen naiz nire harreman eta adiskideekin, gustura sentitzen naiz bizitzarekin”) (Erantzun-
formatua: 1 erabat desados eta 4 erabat ados).
- | Egoera pertsonalaren balorazioa baliabidera sartu aurretik. (Erantzun-formatua:
1 oso txarra eta 4 oso ona).
- | Prozesu pertsonalaren balorazioa Espainiara iristen direnetik. (Erantzun-for-
matua: 1 oso txarra eta 4 oso ona).
- | Egungo egoeraren balorazio orokorra. (Erantzun-formatua: 1 oso txarra eta 4 oso
ona).

Behar eta baliabideen azterketa

- | Baliabideen erabilera (Caritas, SOS Arrazakeria, Hiritarron Harrera Sarea, Gurutze
Gorria, GLUZ edo Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzua, Kolore Guztiak, Loiola Etxea, Arrats,
Emaus, Harrotuileak, Modahara, Peñascal, Diputazioa, eta beste zenbait).
- | Erabilitako baliabideen balorazioa (GLUZ edo Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzua, Ca-
ritas, Gurutze Gorria, Kolore Guztiak, SOS Arrazakeria, Harrera Sarea, Loiola Etxea, Arrats,
Modahara, Peñascal, Diputazioa, eta beste zenbait) (Erantzun-formatua: 1 oso txarra eta 4
oso ona).
- | Baliabideek beharrak hautematea eta horiei erantzutea (prestakuntza-ikastaroak,
gaztelania-ikastaroak, euskara-ikastaroak, lanerako aukera, laguntza ekonomikoak, bizi-
tzeko etxea/gela, janaria, garraiorako dirua, arropa, aisialdiko jarduerak, botikak, dokumen-
tazioaren tramitazioa, osasun-laguntza, dentista, gastuetarako dirua, hainbat tramite egiteko
laguntza, laguntza psikologiko profesionala, hitz egiteko eta entzuteko norbait, hainbat lagun,
beste zenbait) (Erantzun-formatua: 1 erabat desados eta 4 erabat ados).
- | Hainbat alderdiren pertzepzioa baliabideetara joatean (“erabiltzen ditudan ba-
liabideetan esaten edo eskatzen didatena ulertzen dut; ulertzen dut zer esaten didaten hizkuntza
menderatzen dudalako; behar dudan horretan laguntzen didate; askotan, baliabideetara joan
beharra sentitzen dut, behar ez dudan arren; baliabideetara joaten naiz norbaitekin hitz egin eta
norbaitek entzuten didala sentitzeko; hitzorduetara joateko arazoak izaten ditut, ez baitut ga-
rraioa nola ordaindu; hitzorduez ahaztu egiten naiz; langileek ulertzen nautela sentitzen dut; ba-
tzuetan baliabideetara joaten naiz eta ez dakit ondo zertarako noan; eskertzen dut baliabideetan
ematen didaten laguntza; gehiegi eskatzen zaidala sentitzen dut; eskaintzen zaizkidan baliabidee-
kin lagunduta sentitzen naiz; ondo sentitzen naiz baliabideetara joaten naizenean; eta babestuta
sentitzen naiz baliabideei esker”) (Erantzun-formatua: 1 erabat desados eta 4 erabat ados).

Arazoak poliziarekin edo segurtasun-indarrekin

- | Poliziarekin edo segurtasun-indarrekin izandako arazo-en maiztasuna (*Ertzaintza, Udaltzainak, Polizia Nazionala, Segurtasun pribatua*) (Erantzun-formatua: 1 inoiz ez eta 4 oso maiz).
- | Poliziarekin edo segurtasun-indarrekin izandako arazo-motak (*Ertzaintza, Udaltzainak, Polizia Nazionala, Segurtasun pribatua*) (Erantzun-formatua: 1=isunak, 2=dokumentazioa eskatu didate, 3=eraso egin didate, 4=iraindu egin naute, 5=beste zenbait).

Egoera osasun-larrialdian eta konfinamenduan

- | Auzotarren aldetik kexak jasotzea kalean dagoelako (BAI/EZ).
- | Poliziaren kargu-hartzea kalean dagoelako (BAI/EZ) eta nork (*Udaltzainak, Polizia Nazionalak, Segurtasun-guardiak, besteren batek*).
- | Dokumentazioa eskatzea (BAI/EZ).
- | Isunak (BAI/EZ).
- | Poliziaren aldetik jasotako tratuaren balorazioa (*oso txarra, txarra, normala, ona, oso ona*).
- | Azken egunetako sintomak (*eztula, eztarriko mina, sukarra, ondoez fisikoa, beherakoak, sabeleko mina, buruko mina*).
- | Medikuarengana joatea, sintomak direla eta (BAI/EZ).

Aterpetxeetako egoera

- | Aterpetxearen barruko egoera (*bainuak/dutxak, oheak, espazioa, jatorduak, jasotako tratua, bertako jarduerak, beste kideekiko harremana, tabakoa izateko aukera, alkohola izateko aukera*) (Erantzun-formatua: 1 batere pozik ez eta 4 oso pozik).
- | Alderdi positiboak aterpetxekeo sentimenduei dagokienez (erantzun irekia).
- | Aterpetxean ongi funtzionatzen ez duten edo arazoak sortzen dituzten alderdiak (erantzun irekia).
- | Hiru hitz aterpetxeari buruz (erantzun irekia).

| Sare sozial eta/edo lagun gehiago izatea COVID-19aren ondorioz emandako baliabidean. (Erantzun-formatua: 1 batere ez eta 4 asko).

| Gaur egungo sentimenduak (Kezkatuta, pozik, animatuta, zoriontsu, nekatuta, suminkor, ikeratuta, itxaropenarekin, dudatsu, eskertuta, triste, urduri) (Erantzun-formatua: 1 erabat desados eta 4 erabat ados).

COVID-19arekiko sentipenak

| Beldur-emozioa koronabisurari dagokionez ("Covid-19rekin gaixotzeak beldurra eragiten dit, gaixotasun horren ondorioz hiltzeko beldurra dut, nire hurbileko senideak kutsutako ote diren beldur naiz, norbait kutsatuko ote dudan beldur naiz, egoera hori amaitzean nire egoera ekonomikoa nolakoa izango den pentsatzeak ikara ematen dit, hori guztia pasatzen denean neure burua berriz ere kalean ikusteak beldurra ematen dit") (Erantzun-formatua: 1 erabat desados eta 4 erabat ados).

Etorkizuneko ikuspegia

| Etorkizunari buruzko sentipenak eta pentsamenduak ("uste dut gauzak hobetu egingo direla; uste dut gauzak okertu egingo zaizkidala niri eta nire egoeran dauden pertsoneri; gero zer gertatuko den pentsatuta, ez naiz seguru sentitzen; aurrera ateratzeko gai izango naizela uste dut; nire kualitate eta baliabideei esker, egoera berriei aurre egingo diedala uste dut, nahiz eta egoera zaila izan; lasai nago aurrera ateratzeko beharrezko trebetasunak badituzalako") (Erantzun-formatua: 1 erabat desados eta 4 erabat ados).

Aldagai soziodemografikoak: genero-identitatea, egoera zibila, adina, jaioterria, etab.

3.2.2. | Lagina eta prozedura

Azterlanaren lagina 37 gazte etorkinek osatzen dute. UPV/EHUko psikologia-karrerako praktiketako ikasleek egin zieten inkesta. Inkestako galderei erantzutean, parte hartzen zutenek esaten zituzten gauzak ere apuntatzen zituzten, galdetutakoari buruz haien testigantzak izateko. SOS Arrazakeria Gipuzkoako aditu batek koordinatu eta kudeatu zituen inkestatzaileak eta erantzuleak.

Parte-hartzaile gutxi izatea hainbat faktoreren ondorio izan da. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak populazio ikusezin direla, eta, horregatik, zaila izan daitekeela haiekin harremanetan jartzea. Bigarrenik, egoera horri osasun-larrialdiak eragindako mugitzeko murrizketak gehitu behar zaizkio, eta, kasu askotan, galdetegia aurrez aurre egitea ezinezkoa zenez, behin baino gehiagotan telefonoz egin behar izan zen, eta hori ere arazo bat da, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsona guztiek ez baitute telefono mugikorrik. Hirugarrenik, kontuan hartu behar da pertsona horiek horrelako elkarrizketak egiteko izan dezaketan mesfidantza; izan ere, nahiz eta informazioa jaso beren datu eta erantzunen erabilerari buruzkoa, egoera ahulean daude eta litekeena da galdera batzuei ez erantzun nahi izatea, alderdi sentsible eta pertsonalak ukitzen baitira. Laugarrenik, azpimarratu behar da galdetegia betetzeko elkarrizketak ordubete baino gehiago iraun zezakeela kasu askotan, horregatik uko egin ziezaioketen erantzuteari, horrek suposatzen zuen ahaleginagatik. Azkenik, ez da ahaztu behar egoitza-esklusioa jasaten duten pertsonak baliabideetara joaten direla premia-premiazko gaien inguruko laguntza bila, hala nola paperak tramitatzea, ostatua, janaria etab. Ulegarria da, beraz, baliabide baten aldetik eta esparru horretako galdera-sorta baten aurrean, ez erantzun nahi izatea beste lehentasun batzuk izateagatik edo horrelako gauzez hitz egiteak emozionalki ukitu egiten dituelako eta hortik pasatu nahi ez dutelako.

Lagina jasotzeko, gazteekin jarri ziren harremanetan eta, haiek baimena eman ondoren, elkarrizketak egin ziren, aurrez aurre edo telefonoz, parte-hartzaileen prestutasunaren arabera.


3.2.3. | Eraitzen azterketa

Datuak aztertzeko, SPSS Statistics IBM programa erabili zen. Azterketa deskribatzaileak egin ziren, aldagaien erantzun-maiztasunen azterketa. Beste alde batetik, batezbestekoen konparazioa ere egin zen, Pearsonen khi karratuaren probaren bidez, eta efektuaren tamaina Cramer-en V koefizientearekin kalkulatu zen, parte-hartzaileek hautemandako beharrak aztertzeari eta beharrian horiek baliabideei esker asetzen ziren aztertzeari zegokionez.

3.2.4. | Parte-hartzaileen profil soziodemografikoa


Lagin osoaren %97 gizonetzko gisa identifikatu zen, eta hori bat dator kolektibo horretako pertsona gehienak gizonetzkoak direla dioten aurkikuntza zientifikoekin. Ildo beretik, gehien-gehienak Marokotik datoz (%83). Bestalde, %8 Senegalen jaiotakoak dira, %3 Aljerian, %3 Errumanian eta %3 Saharan (IKUS 1. IRUDIA).

1. Irudia. Pertsona parte-hartzaileen jatorria




Aurkikuntza zientifikoekin bat datorren beste datuetako bat etorkin gazteen adinari dagokio; oso populazio gaztea da. Parte-hartzaileen %54k 18-22 urte bitartean ditu, eta %27k, berriz, 23-27 urte bitartean. %11 28 eta 32 urte bitartekoak dira, eta %8 33 eta 40 urte bitartekoak (IKUS 2. IRUDIA).

2. Irudia. Parte-hartzaileen adina




Gehienak ezkongabeak dira (%92); %8k adierazi zuten bikote-harreman bat zutela. Herrialdera iritsi ziren adinari dagokionez, parte-hartzaileen ia erdia, %41, adinez txiki zirela iritsi ziren; %35ek 18 eta 23 urte bitartean zituzten iritsi zirenean. Azkenik, parte-hartzaileen %13k 24 eta 29 urte bitartean zituzten, eta %11k 30 eta 35 urte bitartean zituzten Espainiara iritsi zirenean (IKUS 3. IRUDIA).

3. Irudia. Espainiara zer adinarekin iritsi ziren



Parte-hartzaileak herrialdera iritsi zirenetik igarotako denborari dagokionez, ikus daiteke parte-hartzaile gehienek 5 urte baino gutxiago daramatela Estatu espainolean; gure gizartean duela gutxitik bizi diren edo Euskadin denbora gutxi daramaten biztanleak dira, beraz. %14ak ez daramatza 6 hilabete baino gehiago Espainian. %43k 6 hilabete eta 2 urte artean daramatza, eta %30ak 2 eta 4 urte bitartean daramatza herrialdean. Azkenik, %5 Espainian bizi da duela 4 edo 5 urtetik, eta %8k 5 urte baino gehiago daramatza (IKUS 4. IRUDIA).

4. Irudia. Espainiara iritsi zirenetik igarotako denbora



| EMAITZAK |

3.3. ALDERDI OROKORRAK

3.3.1. | Egoera administratiboa

Komunitate bateko egoiliar izateak eskubideak ematen ditu eta baita betebeharrak ere. Bizitoki-egoera irregularrean egotean eskubiderik ez duzu, baina obligazioak bai. Horregatik, egoera irregularrean dauden pertsonak desabantaila soziala dute, ezin baitituzte komunitateko partaide gisa goza daitezkeen berme guztiak eskuratu.


Egoera administratiboari buruz galdetzen diegunean, gazte batek hau dio:

Bizileku-baimena izan nuen, baina iraungi egin zitzaidan, orain egoera irregularrean nago. Oso zaila da baimenak lortzea, urtebeteko lanaldi osoko kontratuak, etab. eskatzen dizkizute.

Amid, 31 urte

Gazte gehienak egoera administratibo irregularrean daude; parte-hartzaileen %89 daude egoera horretan. %8k iraupen luzeko baimena du eta %3k aldi baterako baimena du (IKUS 5. IRUDIA). Egoera hori neurri handi batean egungo Atzerritarren Legearen ondorio da, lege horrek zaildu egiten baitu neska-mutil gazte etorkinen erregularizazio-prozesua. Zailtasun handienetako bat: neska-mutil gazteek beren egoera administratiboa erregularizatzeko eskaera herrialdean 3 urte bizitzen eman arte ezin hasi izatea. Hiru urteko itxaronaldia, beraz, modu legalean lan egin ezinik eta oso baliabide gutxirekin maila guztietan, behar-beharrezkotik hasi eta garapen- eta dibertsio-baliabideetaraino.


5. Irudia. Egoera administratiboa



3.3.2. | Erroldatzea


Erroldatze-ziurtagiria norbait toki jakin batean bizi denaren konstantzia da. Hori da, hain zuzen ere, gazteek ematen duten lehen pausoa hain desiratua duten erregularizazio administratiboa lortzeko. Hala ere, probintziako udal guztiek ez dute kalean dauden etorkinak erroldatzeko protokolorik. Horrek pertsona horientzako prozesua oztopatu eta zaildu egiten du. Hori horrela izanik ere, parte-hartzaileen %92 erroldatuta dago. Horrek esan nahi, zailtasunak zailtasun, gehienek baldintza hori betetzen dutela, baina gogoratu behar da lagin osoko pertsonak 5 urte baino gutxiago baina 6 hilabete baino gehiago daramatela hemen bizitzen. Udal-errolda eskuratzeko izan zuten zailtasun-mailari dagokionez, erroldatutako parte-hartzaile guztietatik %83ri zaila gertatu zitzaion erroldatzea (IKUS 6. IRUDIA).

6. Irudia. Erroldatzeko orduan izandako zailtasun-maila




Erroldatuta daramaten denborari dagokionez, %34ak urtebete baino gutxiago darama, eta pertsonen %50ak urtebete eta 2 urte artean daramatza erroldatuta. Pertsonen %8k bakarrik daramatza bi eta 3 urte artean, eta %6 besterik ez da 3 urte edo gehiago daramatzana erroldatuta (IKUS 7. IRUDIA).

7. Irudia. Erroldatu zenetik igarotako denbora




Erroldatuta daudenen artean, %63 Gipuzkoako hainbat udalerritan daude, hala nola Donostian, Errenterian, Hondarribian etab.etan (IKUS 8. IRUDIA).

8. Irudia. Erroldatze-lekua, udalerrietan



Azkenik, Donostiako udalerrian, pertsonak hainbat auzotan erroldaturik daude: Amaran, Antiguan, Intxaurrondon, etab.etan. %28 instalazio ofizialetan dago, hala nola Ubako Adingabeen Zentroan, Abegi/CMAS udal-aterpetxean edo GLUZen (Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzuan) edo beste erakunde batzuetan, besteak beste Caritasen eta Gurutze Gorrian, etab.etan. (IKUS 9. IRUDIA).


9. Irudia. Erroldatze-lekua, erakundeetan



3.3.3. | Lan ordaindua egitea

Neska-mutil gazteen egoera administratiboa eta Atzerritarren Legea (urtarrilaren IIko 4/2000 Lege Organikoa) direla eta, neska-mutil gazteek ezin dute lanik egin, ez dutelako horretarako eskubiderik. Horrek "eskuak lotuta" uzten ditu, ezin dute lanik egin eta beren errealitatera egokitutako baliabide gutxi dituzte. Egoera horrek gizarte-bazterketa dakar. Ikuspuntu horretatik, herrialdean bizitzen daramaten denboran lanen bat egiteko aukerarik izan duten galdetu zitzaizen. Parte-hartzaileen %8k bakarrik egiten zuten ordaindutako jardueraren bat larrialdi-egoera baino lehen (IKUS 10. IRUDIA).

10. Irudia. Lan ordaindua



Horrek erakusten du kolektiboak zailtasunak dituela bere bizimodua ateratzeko. Gizarte-bazterketaren ondorioz, erakundeen mende edo erakundeen laguntzen mende egon behar dute.

Horri buruz galdetzen zaienean gazteek honela erantzuten dute:

Ni hona lan egitera etorri nintzen; Marokon banuen lana eta uste nuen hona iritsi eta lan egingo nuela. Baina hona iristen zara eta ezin duzu lanik egin. Zer da bizi-tza lanik gabe.

Moustapha, 27 urte

Edozertan lan egitea gustatuko litzaidake, lantxo bat diru pixka bat eduki ahal izateko.

Oussama, 19 urte

Lan egin dudan guztietan beltzean egin dut.

Rachidl, 24 urte

Joan den udan arazodun haurrekin aritu nintzen lanean, oso ondo, oso gustura, baina ez zidaten ezer ordaindu.

Fátima, 22 urte

3.3.4. | Kale-egoera

Lan egiterik ez badago eta irauteko laguntzarik ez badago, azkenean kalean bizitzea bes-terik ez duzu. Kasurik onenean, denboraldi bat, norbaiten etxean leku bat lortzen du-ten arte, edo gela bat alokatu ahal izateko baliabideren batean laguntzaren bat lortzen duten arte. Horri dagokionez, neska-mutil gazteek hau diote:

Hona iritsi nintzenean, egoera oso zaila izan zen, oso gaizki pasatu nuen, gosea nuen, hotza... bakarrik sentitzen nintzen.


Hicham, 21 urte

Kalean lo egin izan dut, baina ez aldi jakin batean, denboraldietan baizik, beti ateratzen bainuen bizimodua. Batzuetan laguneren etxean egotea lortzen nuen, eta beste batzuetan txabola edo etxe abandonatu bat bilatzen nuen. Nik horri kalean egotea deitzen diot. Denboraldiren batean 3 hilabete egon nintzen jarraian, beste batean 2 hilabete... Ez naiz iritsi urtera.

Rachid, 24 urte

Emaitzek erakusten dutenez, elkarrizketatutako neska-mutil gazte guztiak egon dira ka-lean, gutxienez denbora batez. Lagin osoaren %17k esan zuen 6 hilabete baino gutxiago bizi izan zela egoera horretan. Parte hartu duten pertsonen %54 6 hilabete eta 1 urte- bete bitartean egon da egoitza-esklusioan, eta %21 urtebete eta 2 urte bitartean egon da egoera horretan. Azkenik, %8 bi urtetik gora egon da kalean bizitzen (IKUS 11. IRUDIA).

11. Irudia. Denbora kale-egoeran



3.3.5. | Laguntzak: jatorria eta zenbatekoak

2008ko krisi ekonomikoan, gazte etorkinen etorrera nabarmen jaitsi zen, eta haien-tzako jarritako baliabideak gutxitu egin ziren. Hamar urte geroago, asko handitu zen populazio horren etorrera probintziara, eta zerbitzuek gainezka egin zuten, egoerari modu eraginkorrean aurre egin ahal izateko edozein arlotako baliabide nahikorik gabe. Baliabideak gutxi dira eta neska-mutil gazteak asko.


Mantenurako eta alokairurako laguntzak jasotzeko baldintzak gogortzea izan zen administrazioen irteera. Laguntzarik jasotzen ote duten galdetzen zaienean, gazte batek hala dio:

Laguntzak kendu zizkidaten hitzorduetara ez nintzela joan esanez, baina niri inoiz ez zidaten deitu hitzordua jartzeko. Orain laguntza dut logela ordaintzeko soilik, ez dakit, zertaz uste duten bizi ahal naizela.

Abdul, 20 urte


Parte-hartzaileen %32k ez du inolako prestaziorik jasotzen, %38k Administrazioaren prestazio ekonomiko bat jasotzen du eta %30ek gizarte-erakunde batena jasotzen du (IKUS 12. IRUDIA).

12. Irudia. Laguntzen jatorria



Ildo horretatik, pertsonen %37k Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuaren diru laguntza jasotzen du. %18k Foru Aldunditik, Loiola Etxetik eta Caritasetik jasotzen du. Azkenik, %9k Peñascalen laguntza jasotzen du (IKUS 13. IRUDIA).


13. Irudia. Diru-sarrereren jatorri zehatzak



Jasotako zenbatekoari dagokionez, laguntzaren bat jasotzen duten pertsonen artean, azpimarratu behar da galdera horri erantzuteko formatua askea izan zela, eta, ondorioz, lortutako emaitzak era askotakoak dira: erantzunak lortzen ditugu jasotako laguntzaren izenarekin, diruaren zenbateko zehatzarekin, laguntzaren helburuarekin eta abarrekin lotutakoak. Hori dela eta, grafikoan (IKUS 14. IRUDIA), 300 eurotik gorako zenbatekoak eta 300 eurotik beherako zenbatekoak jarri ditugu; horrela antolatu dugu informazio hori.

Hala ere, informazio xehatuan, pertsonen %42k aipatu zuten laguntza espezifiko baten izena, hala nola "Lan Partekaturako Laguntzak", "Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak" (GLL), "PEJO". Bestalde, pertsonen %23k hilean 300 euro baino gehiago jasotzen ditu, zehazki 300 eta 633 euro bitartean hileko. %31k 300 eurotik beherako diru-sarrerak jasotzen ditu, eta hor bariazio handiagoa dago: oso kopuru txikiak ditugu, adibidez, hilean 60 euro, eta hortik gora hilean 100 eurotik 200 eurorainokoak ditugu. Pertsona askok, kopuru zehatz bat zehaztu beharrean, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko prestazioa jasotzen zutela esan zuten, baina, kasu horietan, prestazio hori beti 300 eurotik beherakoa da (IKUS 14. IRUDIA).

14. Irudia. Jasotako diru laguntza




3.3.6. | Osasun-egoera eta substantziak hartzea

Kalean dauden neska-mutil gazte etorkinek, hain gazteak direnez, osasun ona dute, kalean dagoen populazio autoktonoak ez bezala (Moreno eta Fernández, 2019). Hala-ber, gazte horien %11k bakarrik adierazten du gaixotasunen bat izan duela. Bronkitisa, hezurren bat haustea, miopia eta sarna kasuak dira izan dituztela dioten gaixotasunak. Emaitza horiek berretsi egiten dute neska-mutil gazteen osasun-egoera ona, ez baitute osasun-sistemaren aldetik tratamendu luzea behar duen gaixotasunik, tratamendu puntualak baizik, osasun ona duen edozein pertsonak bezala.

Bestalde, ikusten da parte-hartzaileek oso botika gutxi hartzen dutela: %19k bakarrik hartzen du botikaren bat. Hauek izan daitezke: lo egiteko botikaren bat, Diazepan esaterako, arnasketa arintzeko botikak, adibidez Ventolín, eta botika analgesikoak, besteak beste Nolotil.


Drogen edo estupefazianteen kontsumoari dagokionez, azterketan parte hartzen dutenen %54k substantziaren bat kontsumitzen du. Horien artean, %20k alkohola edaten du, %35ek tabakoa erretzen du, eta %20k haxixa kontsumitzen du. Bestalde, pertsonen %10ak alkohola eta tabakoa kontsumitzen ditu, eta %15ak, berriz, alkohola eta haxixa (IKUS 15. IRUDIA).

15. Irudia. Kontsumitzen diren substantziak



Substantzia horien kontsumo-maiztasunari dagokionez, %80ak noizean behin kontsumitzen ditu, eta %20ak, berriz, maiz kontsumitzen ditu (IKUS 16. IRUDIA).

16. Irudia. Substantzien kontsumo-maiztasuna



3.3.7. | Arazo-motak eta maiztasuna poliziarekin edo segurtasun- indarrekin

Zenbait polizia eta segurtasun-indarregandik jaso duten tratuaz zer iritzi duten galde-tu diegu neska-mutil gazteei. Elkarrizketatutako gazteen arabera ezin da orokorrean hitz egin, era askotako esperientziak baitituzte. Hau esan dute:

Polizia Nazionalarekin merezi ez nituen arazoak izan ditut; diskriminazio handia dago segurtasun-indar horretan; dokumentazioa eskatzeko gelditu izan naute, eta, bide batez, egin ez ditudan delituak etab. leporatu izan dizkirate.

Mohamed, 19 urte

Segurtasun pribatuak asko begiratzen nau dendetara sartzen naizenean, zerbait txarra egin nahi dudala pentsatzen dute.

Moustapha, 27 urte

Renfen hainbeste begiratzen naute non lotsa ere sentitzen baitut.


Abdul, 20 urte

Poliziek emandako tratua 'txartzat' jotzen badut ere... ezin dut orokortu. Gehienek (%70ak) ondo tratatzen naute.

Hamid, 21 urte

Hala, elkarrizketatutako gazteen %84ak adierazi du noizbait izan dituela arazoak poliziarekin, orokorrean. Zehatzago esanda, pertsonen %22ak izan du, gutxienez arazoren bat, Ertzaintzarekin, %27ak Udaltzaingoarekin eta %35ek Polizia Nazionalarekin. Gainera, %8ak segurtasun pribatuko agenteren batekin. Bestalde, lagin osoaren %30ek dio Ertzaintzarekin arazoak izaten dituela askotan edo nahiko maiz, eta %19ak dio arazo horiek dituela Udaltzaingoarekin, %8ak Polizia Nazionalarekin eta %16raino igotzen da Segurtasun Pribatuko agenteekin arazoak izandakoen kopurua (IKUS 17. IRUDIA).

17. Irudia. Arazoak poliziarekin edo segurtasun-indarrekin



Neska-mutil gazte etorkinek deskribatzen dituzten arazoek zerikusia dute dokumentazioa etengabe eskatzearekin, erregistratzearekin eta lapurreta-presuntzioarekin. Honela diote:

Egun batean, Tabakalera, lagun batek mugikorra kargatzen utzi eta alde egin zuen. Handik tarte batera, nik joan egin behar nuen, ez nuen mugikorra hor utzi nahi eta hartu egin nuen. Gero poliziak kalean gelditu ninduen, erregistratu egin ninduten, bi mugikorrekin ikusi ninduten eta lapurreta leporatu zidaten.

Abdul, 20 urte

Poliziak kalean geldiarazi egiten nau, ezer egin ez badut ere. Jendearen aurrean erregistratzen naute eta lotsa ematen dit.

Youssef, 21 urte


Seguratek ez didate uzten diskotekan sartzen marokoarra izateagatik, baina ez dut inoiz arazorik izan haiekin.

Farid, 24 urte

Hala, dokumentazio-eskaera da ohikoena, batez ere Ertzaintzaren aldetik (%57), eta atzetik Polizia Nazionala (%46). Elkarrizketatutako neska-mutil gazteen %27ri Udaltzaingoak ere eskatu izan die, eta %11ri Segurtasun Pribatuak.

Beste arazo bat irainena da: Ertzaintzak (%30), Udaltzaingoak (%14), Polizia Nazionalak (%11) edo Segurtasun Pribatuak (%5) eragindakoak. Beste alde batetik, %22ak isunen bat jaso du Ertzaintzatik, %24ak Udaltzaingotik eta %3ak Polizia Nazional eta Segurtasun Pribatuaren aldetik, hurrenez hurren. Azkenik, %24raino igotzen da Ertzaintzaren erasoren baten biktima izan den pertsonen kopurua, %14 Udaltzaingoaren erasoren baten biktima izan da eta %8 Polizia Nazionalaren erasoren baten biktima izan da (IKUS 18. IRUDIA).

18. Irudia. Arazo-motak poliziarekin edo segurtasun-indarrekin



3.4. ALDERDI PSIKOSOZIALAK

Neska-mutil gazte etorkinek etxerik eta janaririk ez izateaz gain, ez dute ezta laguntzarik ere, beren garapenean gidatuko eta orientatuko dituen erreferente heldurik ere ez dute. Ezin da ahaztu nerabeak direla, beren nortasun pertsonala eta soziala eratzeko une garrantzitsu batean daudela, eta, beren egoera dela eta, beren pareko autoktonoak baino II urte lehenago emantzipatzera behartuta daudela (epsocial, 2020ko abuztuaren II). Gainera, kontuan hartu behar da neska-mutil gazte gehienak bakarrik etorri direla beren jatorrizko herrialdeetatik. Horregatik, euren sare sozialak aztertu nahi izan ditugu eta baita zer laguntza sentitzen duten ere. Galdetu zaie ea euren familiarekin harremanik duten, ea lagunik duten, eta, baldin badute, ea benetan konfiantzazkoak diren. Neska gazte batek hau dio:


Nire familiaren falta sumatzen dut, baina oso nekeza da haiek etortzea lan-kontuengatik etab.engatik.

Fatima, 22 urte

3.4.1. | Familiaren laguntza

Azterketa honetan parte hartu duten gazte gehienek (%92k) jatorrizko familiarekin harremana mantentzen dute. Beren lagunengandik inguruko galderari dagokionez, %78k dio lagun euskal herritarra edo espainiarra badituela, eta, gainera, konfiantzazkoak direla. Halaber, parte hartzen duten gazteek, batez beste, beren sorterrikoak diren konfiantzazko 3 lagun dituzte. Gainera, nerabezaroan, pertsonak haur izateari uzten diote, baina oraindik ez dira helduak. Norberaren nortasuna eta norberaren autonomia aurkitzeko etapa bat da. Etapa horretan berebiziko garrantzia du familiaren laguntzak, nerabeen portaeren oinarriak hor eraikitzen baitira. Gazte gehienek familia urrun dutela kontuan hartuta, familiak ematen dieten laguntzari buruz eta eurek horri ematen dioten balioari buruz galdetu diegu. Emaitzen arabera, parte-hartzaileen %59k "asko" baloratzen du familiaren laguntza. %19k "zerbait" baloratzen du laguntza hori, baina %11k ez du "batere" baloratzen edo "gutxi" baloratzen du (IKUS 19. IRUDIA).

19. Irudia. Familiak emandako laguntzaren balorazioa



3.4.2. | Adiskideen laguntza


Adiskide edo lagunengandik jasotako laguntzaz galdetzen zaienean, neska-mutil gazteek bat-batean erantzuten dute:

Hemen oso zaila da lagunak egitea; neskek mutil marokoarren lagun gisa ikusten zaituzte, haiekin zerbait izango bazenu bezala eta niretzat lagunak besterik ez dira, baina neskek ez dute hori ulertzen. Hemengo mutilek ere ez zaituzte Marokokoek bezala tratatzen; beste gauza batzuetan pentsatzen dute.

Fátima, 22 urte

Neska-mutil nerabeentzat oso garrantzitsuak dira lagunak. Neska-mutil lagunak intimoagoak dira eta haiek laguntza handia ematen dute. Horregatik, elkarrizketatutako etorkinen %38k "asko" baloratzen du lagunak ematen dioten laguntza, eta %35ek "zerbait" baloratzen du. Aldiz, %22k uste du laguntza hori balio "gutxikoa" dela, eta %5ek ez du "batere" baloratzen (IKUS 20. IRUDIA). Izan ere, esperientzia gogorak bizi izan dituzte beren herrialdeetatik atera zirenetik, ondoren kale-egoeragatik eta abarregatik, eta horregatik izan liteke lagunak gutxi edo batere ez baloratze hori.

20. Irudia. Adiskideek emandako laguntzaren balorazioa



Garrantzitsua da kontuan hartzea gazte bakoitzak bere historia pertsonala duela. Horregatik, garrantzi handia du haiei eman dakiekeen laguntzak. Erreferentziazko heldu bat izatea, nahiz eta hezitzaile bat edo gizarte-laguntzaile bat izan, orientatzen lagunduko diena eta beren erreferente izango dena, guztiz beharrezkoa da gazte horiek dauden eboluzio-aldian.

3.4.3. | Gizarteratzea

Gainera, talde batekoa izatea funtsezkoa da norbere nortasuna eraikitzeko. Hori da nerabe baten garapenaren mugarririk garrantzitsuen (Ives, 2014): nor diren jakitea behar dute, errespetatuak eta maitatuak direla sentitu behar dute gizaki orok behar duen bezala, horrela eurak ere nor sentitzeko.

Beste alde batetik, 2018ko Immigrazioarako Euskal Hitzarmen Sozialak immigrazioa egiturazko errealitatea dela adierazten du, eta ondorio positiboak dituela gure gizartean, inklusiotik eta aniztasunetik abiatuta, berdintasun-testuinguru batean, aurre egiten diogun tamainan betiere. Baina, egia esan, kalean dauden gazte etorkinak oso urrun daude espero den gizarteratzetik. Gizarte honetan beren burua nola ikusten zuten galdetuta, gazteek hau diote:

Me gustaría hacer amigos de aquí pero no sé cómo, es muy difícil.


Fátima, 22 urte

Nosotros somos diferentes, somos de otro país.

Mohamed, 31 urte

Parte-hartzaileen %27k uste du gizarteratze-maila altua duela; %45ek dio euskal gizartean dezente gizarteratuta dagoela, eta %28k gizartean gutxi integratuta ikusten du bere burua (IKUS 21. IRUDIA).

21. Irudia. Parte-hartzaileen gizarteratzea



3.4.4. | Bakardade-sentsazioa


Gehienek ez dute ez familiarik eta ez erreferentziazko heldurik, horregatik bakardade-sentsaziorik zuten edo baztertze-sentimendurik zuten arakatu nahi izan zen. Galdera horretatik abiatuta, gazte batek honela dio:

Batzuetan sentitu izan dut gaizki begiratzeko diguten jendea badagoela. Euskal Herrian ez dut Madrilén adina arrazakeria sentitu. Han arrazakeria handia zegoen.

Oussama, 19 urte

Horri dagokionez, azterlan honetako datuek erakusten dutenez, gazteen %16k "beti" sentitzen du konpainia-falta, eta %25ek "maiz" sentitzen du gabezia hori. %43k "noizean behin" sentitzen du falta hori eta %16ak ez du "inoiz" sentitzen (IKUS 22. IRUDIA). Datu horiek erakusten dutenez, bakardade-sentsazioa parte-hartzaile gehien-gehienek sentitu duten sentsazioa da.


22. Irudia. Bakardade-sentsazioa



3.4.5. | Baztertze-sentimenduak

Baztertze-sentimenduari dagokionez, parte hartu duten gazteen %14k adierazi du "beti" sentitzen dutela, eta %16k, berriz, "maiz" sentitzen dutela. %38 "noizean behin" baztertuta sentitzen da, baina %32 ez da "inoiz" sentitzen (IKUS 23. IRUDIA). Etorkin gazteak beren artean elkartzen dira eta ikuspegi horretatik uler daitezke datu horiek, eta, horregatik, ez dute baztertze-sentsaziorik, beren taldean integratuta sentitzen direlako.


23. Irudia. Baztertze-sentimendua



3.4.6. | Isolatze-sentimenduak

Era berean, isolatze-sentsaziorik zuten galdetu zitzaizen. %14k isolatze-sentimenduak ditu "beti", eta beste %14k "maiz". Era berean, parte-hartzaileen %42k adierazi du sentimendu horiek "noizean behin" esperimentatzen dituela, eta %30ek ez dituela "inoiz" sentitzen (IKUS 24. IRUDIA).


24. Irudia. Isolatze-sentimendua



3.4.7. | Autoestimua

Autoestimuari dagokionez, literaturak dio autoestimua aldatu egiten dela pertsonen bizitzan, eta gutxitu egiten dela nerabezeroaren hasieran eta nerabezeroan zehar. (Robins eta Trzesniewski, 2005; Robins, Trzesniewski, Tracy, Gosling eta Potter, 2002; Trzesniewski, Donnellan eta Robins, 2003). Horregatik, eta bizi duten gizarte-bazterketaren aurrean, gazteen autoestimuan sakondu zen. Emaitzen arabera, erdiek baino gehiagok autoestimua altua dute (%54), %38k autoestimua ertaina dute eta %8k autoestimua baxua (IKUS 25. IRUDIA). Datu horiek aztertuz gero, laginaren erdiek baino gehiagok autoestimua handia dute, eta gutxiak dute autoestimua baxua. Horrek esan nahi du, oro har, beren buruaz iritzi ona dutela. Bizi duten bazterketaren aurrean, indargune bat da hau, eta aukera ematen die migrazioa eta bizi-proiektuari eusteko, nahiz eta baldintza gogorretan aurkitu.

25. Irudia. Parte-hartzaileen autoestimua



3.4.8. | Prozesu pertsonalaren balorazioa, herrialdera iristen direnetik

Autogogoeta gisa, herrialdera iritsi zirenetik beren prozesu pertsonalaren balorazioa egiteko eskatu zitzaizen. Horri dagokionez, gazteek hau esan dute:

Positiboki baloratzen dut nire prozesua Espainiara iristean esperientzia irabazi dudalako.


Oussama, 19 urte

Gauza asko ikasi ditut denbora honetan. Jende askorekin aritu naiz, maitatua sentitzen naiz, ondo nago fisikoki eta psikologikoki. Baina kezka ere baditut.

Ahmed, 31 urte

%11k "oso ontzat" jotzen du, eta positibotzat jotzen du; %62k, "ontzat". Aldiz, %22k "txarra" dela uste du, eta %5ek "oso txarra" dela (IKUS 26. IRUDIA). Emaidza horiek erakusten dutenez, nahiz eta egoera txarrean egon, etorkin gazteek migratzeko esperientzia baloratzen dute, eta, hortik abiatuta, esan daiteke beren bizi-proiektua gure lurraldean dutela.


26. Irudia. Prozesu pertsonalaren balorazioa, herrialdera iristen direnetik



3.4.9. | Konfinamendu aurreko egoera pertsonalaren balorazioa

Era berean, gazteek beren egoera pertsonalari buruzko balorazioa egin zuten alarma-egoeraren aurretik, eta baloratzeko eskatu zitzaaien. Laginaren ia erdiek uste dute konfinatu aurreko beraien egoera "txarra" zela (%42), eta %22k uste du egoera hori "oso txarra" zela. Parte-hartzaileen %5ek bakarrik baloratzen dute beren egoera pertsonala aterpetxera edo osasun-larrialdian dauden baliabidera sartu aurretik "oso ona" zela; %31k, berriz, aurretik zuen egoera "ona" zela uste du (IKUS 27. IRUDIA). Horrek ez du esan nahi gaur egungo balorazioa hobea denik, kasu batzuetan, pertzepzioa hobetu egin dela ikusi zen, pertsona horiek izan baitzuten lekua gaitutako baliabide batzuetan.

27. Irudia. Konfinamendu aurreko egoera pertsonalaren balorazioa




3.4.10. | Egungo egoeraren balorazio orokorra

Orain lehen baino askoz hobeto sentitzen naiz, lasaiago. Non lo egina baduzu, dena dago hobeto.

Oussama, 19 urte

Prozesuaren balorazioa amaitzeko, beren egungo egoeraren balorazioa egiteko eskatu zitzaaien. Pertsonen %11k "oso ona" dela uste du, %70ek "ona". %16k "txarra" dela dio, eta %3k, berriz, "oso txarra" dela (IKUS 28. IRUDIA). Gaur egungo egoera oso ontzat jotzen duten pertsonak konfinamenduan aterpetxe batean plaza bat izan eta kalean egotetik oinarrizko beharrak betetzera pasa diren pertsonekin harremanu daitezkeela pentsa daiteke. Pentsatzekoa da balorazio hori oso positiboa izatea.

28. Irudia. Egungo egoeraren balorazio orokorra



3.5. ETXEGABETASUN BIKTIMENTZAKO BALIABIDEEN ERABILERA

3.5.1. | Kalean dauden pertsonentzako gaitutako baliabideak


Kaleko egoeran dauden pertsonentzako baliabideak ez daude diseinatuta kaleko egoeran dauden gazte etorkinentzat (Moreno eta Fernández, 2019). Horietan, hiru egun jarraian bakarrik egon daitezke; gainera, ez dago egunero dutxatzeko baliabiderik, eta, beraz, ezin dute egunero garbitu. Baliabideei buruz galdetu zaienean, gazte batek hau esan du:

Baliabideek, une larrian zaudenean, lo egiteko aukerak eskaintzen dizkizute, baina aterpetxeetan izaten da, eta 3 egunetarako, gero tokiz aldatu behar duzu.

Ahmed, 21 urte


Baliabideen erabilerari buruz galdetu zitzaizenean, lagin osotik, gazteen %73 noizbait baliabide batetik pasatu da (IKUS 29. IRUDIA).

29. Irudia. Aurretiako egonaldia egoitza-baliabide batean




Baliabideren batetik igaro diren pertsonen artean, %59raino gaueko aterpetxe batean izan da, eta %37 berriz herrialdeko adingabeen zentroren batean egon da. %4 bakarrik egon da gizarte-harrerako zentro batean (IKUS 30. IRUDIA).

30. Irudia. Zein baliabidetan




Jakin nahi izan dugu, halaber, zenbat denbora igaro den kale-egoeran dauden pertsonentzat egokitutako baliabideak erabili zituzten azken alditik; %27 duela urtebete baino gutxiago egon zen baliabide batean, eta %53 duela 1 edo 2 urte egon zen. %13rentzat duela 2 edo 3 urte izan zen, eta %7 duela 3 urte baino gehiago egon zen (IKUS 31. IRUDIA).

31. Irudia. Baliabideen azken erabileratik igarotako denbora



Gaeko aterpetxeak azken baliabide gisa erabiltzen dituzte gazteek (Moreno eta Fernández, 2019). Alde horretatik, %47k 6 hilabete baino gutxiagoan erabili zituen baliabide horiek, eta %29k 6 hilabete eta 2 urte artean. Baliabide hori 2 edo 3 urtez erabili zuten %18k, eta %6k bakarrik egin zuen 3 urte baino gehiago (IKUS 32. IRUDIA).


32. Irudia. Baliabideetako iraupena



3.5.2. | Baliabideen erabilera

Parte-hartzaileek baliabideak nola erabili dituzten aztertuz gero, %86k noizbait erabili du Gizarte Larrialdietarako Udal Zerbitzua. %84 Caritasera joan da eta %78 Gurutze Gorrira. %62k SOS Arrazakeriaren baliabidea erabili du, eta %51k Diputazioaren baliabideren batera jo du. Harrera Sarean eta Kolore Guztiak-en izan dira %46 eta %43, hurrenez hurren, eta %30 Modahara, Peñascal, Harrotu Ileak, Loiola Etxea, Emaus eta Arratsera joan dira (ikus 33. irudia). Alde horretatik, garrantzitsua da azpimarratzea ia parte-hartzaile guztiek baliabide horietako bat baino gehiago erabili dituztela.

33. Irudia. Baliabideen erabile



3.5.3. | Erabilitako baliabideen balorazioa

Ildo horretatik, etorkin gazteei eskatzen diegu, baliabideen erabiltzaile gisa, hauen balorazioa egin dezatela. Bat-batean, hau diote:

Caritasen gauza asko ez zaizkit gustatu, ez dago oso ondo antolatuta eta hor zegoen jendea ez zitzaidan gustatzen. Egunen batean jatera joan ezin banintzen, jantokia kentzen zidaten. Hotzaldian ere ez nintzen gustura egon. Jende asko zegoen leku txiki batean, eta abar.

Ahmed, 31 urte


Kolore Guztiak baliabidea oso gaizki. Jende oso alferrari bakarrik laguntzen zioten, beti porruak erretzen ari zirenei... Bere bizitzarekin zerbait egin nahi zuen jendeari ez zioten laguntzen.

Bilal, 21 urte

GLUZ baliabidera joan diren gazteen %67k beren esperientziaren balorazio positiboa egiten dute. Caritasi dagokionez, %65ek balorazio positiboa egin du. Gurutze Gorria, %67k positiboki baloratzen du. Kolore Guztiak-i dagokionez, laginaren %80k positiboki baloratzen du. SOS Arrazakeria baliabide positibotzat jotzen dute pertsonen %96k. Jarraian, Harrera Sarea eta Loiola Etxea baliabideei balorazio positiboa egin diete bertaratutako erabiltzaile guztiek. Gauza bera gertatzen da Peñasal baliabidearekin.

Gainera, Arrats positiboki baloratu dute erabiltzaileen erdiek (%50), eta %64k ontzat eman du Modahara baliabidea. Azkenik, %47k positiboki baloratu du Diputazioa (IKUS 34. IRUDIA).

34. Irudia. Erabilitako baliabideen balorazioa



3.6. BALIABIDEEN BEHARRAK ETA ARRETA

Ikerketa honetan erabiltzaileek eskaintzen zaizkien baliabideen inguruan zer pentsatzen duten ikertu nahi izan dugu. Horiek beren beharrak asetzen dituzten, zer falta zaien eta nola hobetu daitezkeen. Puntu horretaz ari garela, hau adierazi dute:

Batzuetan oso azkar egin nahi du, ez dit astirik ematen. Oso gogorra da. Batzuetan ez dakit non dauden gauzak. Gauza asko dira.

Ez dute ezer konpontzen behar duzunean, beti itxaron, itxaron... Itxaron zer, ezer ez badago.

Karim, 21 urte

Baliabideek, une larrian zaudenean, lo egiteko aukerak eskaintzen dizkizute, baina aterpetxeetan izaten da, eta 3 eguneko epean, gero tokiz aldatu behar duzu.

Ahmed, 31 urte

Esan beharra dago gazte horiek jasaten duten gizarte-bazterketa zeharkakoa dela beren bizitzako maila guztietan. Horrek esan nahi du ia denetarik falta dutela, oinarrizko beharrak ez dituztela asetzen, hala nola eguneroko elikadura eta bizitzeko sabai duin bat, baina ez dutela ez arroparik, ez eta norbera garatzeko eta dibertitzeko jarduerarik, ez lan-bizitzarako prestakuntza-ikastarorik eta abar. Baina laguntza, orientabide edo babesik ere ez dute. Hori ikertzeko, zer premia hautematen dituzten eta dauden baliabideek estaltzen dituzten galdetu diegu. Oinarrizko behar guztiak kontuan hartzen saiatu ginen, hala nola elikadura, alokairurako dirua, garraiorako dirua, arropa, etab., baina, horrez gain, laguntza psikologikoa, konpainia edo izapideak egiteko laguntza, osasunlaguntza, dentista, betaurrekoak eta abar ere hartu ziren aintzat. Gainera, beste hainbat alderdiri buruz ere galdetu zitzairen, hala nola hizkuntzetako prestakuntza (gaztelania eta euskara), enplegurako prestakuntza, etab.

3.6.1. | Oinarrizko behar ez-bermatuak


Emaitzen arabera, gazteek uste dute janaria behar dutela, laginaren %92ren arabera. Hala ere, parte-hartzaileen %31k uste du baliabideek ez diotela behar horri erantzuten. Hala ere, ez zen estatistikoki esanguratsua den alderik aurkitu hipotesi nulua proba dagokionez ($\chi^2(1)=2,01$; $p=0,156$), nahiz eta efektu moderatuaren tamaina aurkitu (Cramer-en $V = 0,236$).

Gainera, osasun-laguntza behar dutela uste dute (%61), eta %56k uste du ez dela baliabideek bermatzen duten beharra. Jateko beharrarekin bezala, ez zen estatistikaren aldetik esanguratsua den desberdintasunik aurkitu premia gisa hautemateari eta hipotesi nuluko proban ($\chi^2(I)=1,85$; $p=0,174$) arreta emateari dagokienez, baina aldea aurkitu zen efektuaren tamainarekin, zeina neurritzkoa baita (Cramer-en $V = 0,24$).

Bestalde, lan honetan, gazteentzako laguntza psikologikoa oinarrizko osasun-laguntza espezifikoaren zati bat dela uste dugu, adin txikitasunagatik eta gizarte-bazterketako egoeraren ondorioz bizi izaten dituzten esperientzia kaltegarriak direla eta. %64k laguntza psikologikoa behar du eta %67k adierazi du baliabide horiek ez dutela horretarako laguntzarik ematen. Esan beharra dago estatistikoki desberdintasun esanguratsuak daudela beharraren pertzepzioaren eta ematen den arretaren artean ($\chi^2(I)=5,45$; $p=0,02$), eta efektuaren tamaina nahiko handia dela (Cramer-en $V = 0,42$).

Emaitza horietatik abiatuta, ondoriozta daiteke janaria, osasun-laguntza eta laguntza psikologikoa premia larriak direla eskura dituzten baliabideek estaltzen ez dituzten gazteentzat (IKUS 35. IRUDIA).


35. Irudia. Oinarrizko beharrak eta baliabideen arreta



3.6.2. | Laguntzarik eza

Bestalde, asistentziarekin eta laguntzarekin lotutako beharrei dagokienez ere emaitza garrantzitsuak lortu ditugu. Adibidez, pertsona batek hitz egiteko eta entzuteko beharra du, eta pertsonen %67k beharrezkotzat jotzen du. Hala ere, %42k aipatzen du baliabideek ez dutela behar hori aintzat hartzen, eta estatistikoki alde nabarmenak daudela hipotesi nulua probari dagokionez ($\chi^2(1) = 4,84$; $p = 0,028$), bai eta efektu moderatuaren tamainari dagokionez ere (Cramer-en $V = 0,39$). Ildo horretatik, gazteek uste dute laguntza behar dutela izapide administratiboak egiteko (%78), eta %41ek uste du behar hori ez dutela betetzen eskura ditzaketen baliabideek. Hala ere, ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu hipotesi nulua proban ($\chi^2(1) = 3,33$; $p = 0,068$), baina bai efektu moderatuaren tamaina (Cramer-en $V = 0,313$) (IKUS 36. IRUDIA).

36. Irudia. Baliabideetako arreta, babes eta laguntza beharrak




3.6.3. | Laguntza administratiboa eta prestakuntzarik eza

Azkenik, emaitza interesgarriak aurkitu dira dokumentuak tramitatzeko beharrari dagokionez; parte-hartzaileen %83k uste du hori beharrezkoa dela, baina %41ek dio baliabideek ez dutela hau artatzen. Kasu horretan, ez zen alde estatistikoki esanguratsurik aurkitu ($\chi^2(I)=1.6$; $p=0,206$), eta aldea ertaina da efektuaren tamainarekin alderatuta (V de Cramer 0,22). Gauza bera gertatzen da prestakuntza-ikastaroen eta gaztelaniazko ikastaroen beharrezkin; izan ere, langileen %89k eta %86k, hurrenez hurren, beharrezkotzat jotzen dituzte horrelako ikastaroak. Baina %35ek eta %28k, hurrenez hurren, aipatu dute behar hori ez dela baliabideen bidez asebetetzen. Ez da emaitza erabakigarriarik aurkitu hipotesi nuluko probari dagokionez, ez eta prestakuntza-ikastaroen beharri dagokionez ere ($\chi^2(I)=1,65$; $p=0,199$), ez eta gaztelaniazko ikastaroen kasuan ere ($\chi^2(I)=3$; $p=0,083$), baina badago efektu moderatuaren tamaina bat bi kasuetan (Cramer-en $V = 0,224$) eta (Cramer-en $V = 298$, hurrenez hurren).

Esan behar da laginaren tamaina txikiak ondorio horiek estatistikoki esanguratsuek ez izatea eragiten duela; hala ere, haren efektuaren tamainak diferentzia bat adierazten digu: alde batetik, alderdi horiek beharrezkotzat jotzen dituzten pertsonen proportzioa, eta, bestetik, baliabideek ez dituztela artatzen uste dutenen proportzioa (IKUS 37. IRUDIA).

37. Irudia. Administrazio eta prestakuntza beharrak eta baliabideetako arreta



3.7. BALIABIDEEN ERAGINKORTASUN ETA EFIKAZIARI BURUZKO PERTZEPZIOA

Gainera, aztertu nahi izan zen nola hautematen duten kalean dauden gazte etorkinek baliabideen eraginkortasuna, esaten zaizkienak ulertzen dituzten eta ea eraginkortasun hori eremu horretan aurkitzen dutela sentitzen duten. Neska-mutil etorkin gazteek go-goeta egiten dute:

Langileak gela bat bilatzeko esan zidan. Erroldatu gabe, kontraturik gabe. Berriro joan eta orain kontratua behar duzu, beste langile bat zen. Berriro joan, beste berri bat, eta jada ez dago laguntzarik. Zoratu egin nahi naute.

Yassine, 23 urte


Žuk arauak bete behar dituzu, baina gero haiek ez dituzte betetzen.

Oussama, 19 urte

3.7.1. | Baliabideekiko komunikazioa

Komunikazioarekin lotutako alderdiei dagokienez, gazteak baliabide batera joaten direnean, %77k ulertzen dute esaten zaiena eta eskatzen zaiena, eta %88k ulertzen du hizkuntza menderatzen duelako (IKUS 38. IRUDIA).


38. Irudia. Komunikazio-pertzepzioa baliabideetan



3.6.2. | Baliabideen alderdi positiboak

Bestalde, %49k uste du baliabideek behar duten horretan laguntzen dietela, eta pertsonen erdiak baino gehiagok (%57) baliabideen arloko langileek ulertzen dituztela. %88ra artekoek eskertu egiten dute jasotako laguntza, eta %74 lagunduta sentitzen da baliabideekiko. %63 eta %51 ondo sentitzen dira baliabideetara joatean, baita babestuak ere, hurrenez hurren, eta %43k dio norbaitekin hitz egiteko eta entzunda sentitzeko dela baliabideetara joateko arrazoietakoa bat (IKUS 39. IRUDIA).


39. Irudia. Baliabideen alderdi positiboaren pertzepzioa



3.6.3. | Baliabideen alderdi negatiboak

Bestalde, baliabideen pertzepzio negatiboagoa dago. Nabarmentzekoa da %60k adierazi duela batzuetan baliabideetara jotzen duela, baina ez dakiela zertarako egiten duen, eta %60k adierazi du behartuta dagoela baliabideetara joatera, nahiz eta ez behar edo zentzu handirik aurkitu ez. Bestalde, %40k zailtasunak ditu baliabideetan programatutako hitzorduetara joateko, ez baitute dirua garraioa ordaintzeko, nahiz eta egia den %40k ere hitzorduak ahaztu ohi dituela baieztatu. Azkenik, azpimarratu behar da pertsonen %48k uste duela baliabideek gehiegi eskatzen dietela (IKUS 40. IRUDIA).

40. Irudia. Baliabideen alderdi negatiboen pertzepzioa



3.8. NESKA-MUTIL GAZTEEN EGOERA KONFINAMENDUAN

3.8.1. | Konfinatu aurreko ostatua


Konfinamenduarekin okerrera egin zuen kalean zeuden gazteen eszenatokiak, baina ikusgarritasun efektua izan zuen gizartearen aurrean, eta hori, atzera begira, positiboa izan zen baliabideren batean plaza lortu zutenentzat.

Futbolaria naiz Koxkasen, eta, konfinatu arte, haiek utzitako lokal batean bizi izan naiz, orain lagun batzuen etxean nago.

Moustapha, 27 urte

Osasun larrialdia eta ondoriozko etxeko konfinamendua gertatu aurretik, %17 kalean edo okupatutako espazio batean zeuden, hurrenez hurren. %6 norbaitek utzitako etxebizitza batean edo aterpetxe batean zegoen, eta %17 Aldundiaren egoitza-baliabide batean zegoen. Azkenik, parte-hartzaileen %37 alokairuko gela batean zegoen (IKUS 41. IRUDIA).


41. Irudia. Konfinamendu aurreko bizitoki-egoera



3.8.2. | Osasun-larrialdiko ostatua


Osasun-larrialdiko emaitzak, aurreko egoerako emaitzak ez bezalakoak izan dira. Etxe-bizitza alokatuetan daudenen datuei eusten zaie, konfinatu aurretik bezala, %37 baitira. Kale-egoeran daudenen kopurua %8ra jaisten da konfinatu aurretik zenarekin alderatuta. Okupatutako eremuak bizileku hartzea %14ra jaitsi da, pixka bat. Bestalde, aterpetxeetan %11 daude. Azkenik, Aldundiaren egoitza-baliabide bat erabiltzen duten pertsonak ia %16 dira (IKUS 42. IRUDIA).

42. Irudia. Konfinamenduko bizitoki-egoera



Gainera, konfinamendurako baliabideren batean zeudenei zein baliabidetan zeuden zehazteko eskatu zitzaie. Banaketa honakoa zen, %20koa La Sirenan eta Uba, Orio, Hotzaldi eta Atanon ere, hurrenez hurren (IKUS 43. IRUDIA). Banaketa berdin horrek zerikusia du lagina oso txikia izatearekin.


43. Irudia. Aterpea konfinamenduan



3.8.3. | Herritarren gaitzespena eta poliziaren jazarpena kalean egoteagatik


2020ko martxoko nahitaezko etxeko konfinamenduak gizarte osoa behartu zuen bere etxean gelditzera, COVID-19aren kutsatzeak geldiarazteko. Kalean zeuden pertsona bakarrak etxerik gabekoak ziren, non babestu ez zeukatenak. Etorkin gazteek erabil zituzketen baliabide urriak ixtean, kalean ibiltzen ziren nora jo jakin gabe. Horrek eragozpenak sortu zituen, neurri batean, jendea kaleetan ikusteak enbarazu egiten zien auzotar batzuei, kale-egoeran zeuden pertsonen zuzenean aurpegiratzerraino. Ildo horretatik, parte-hartzaileen %11k adierazi du kalean egoteagatik herritarren gaitzespenen bat jaso duela, eta %42k kargu-hartzeak jaso zituzten poliziaren eskutik kalean egoteagatik (IKUS 44. IRUDIA).

44. Irudia. Herritarren gaitzespena eta poliziaren kargu-hartzea




Poliziaren kargu-hartzea jaso zuten parte-hartzaileen %22k Ertzaintzarenak jaso zituen, %27k Udaltzaingoenak, %3k Polizia Nazionalarenak eta %3k Segurtasun Pribatuarenak (IKUS 45. IRUDIA).

45. Irudia. Poliziaren edo segurtasun pribatuko kidegoen kargu-hartzea




Kargu-hartzeez gain, parte-hartzaileen %27ari dokumentazioa eskatu zitzaion, eta %5ek isuna jaso zuten poliziaren aldetik, kalean egoteagatik (IKUS 46. IRUDIA).

46. Irudia. Dokumentazio eskaera eta/edo isuna osasun-larrialdian



Gainera, kalean egoteagatik poliziak egiten zizkien kargu-hartzeetan jasotako tratuari buruz ere galdetu zitzairen. %16k "oso tratu txarra" jaso izana baieztatzen du, %8k "txarra" eta %27k "normala". Bestalde, %9k uste du jasotako tratua "ona" dela, eta %4k "oso ona" dela (IKUS 47. IRUDIA).


47. Irudia. Poliziarengandik jasotako tratuaren balorazioa



3.8.4. | Osasun-arreta konfinamenduan

Konfinamenduan COVID-19arekin zerikusia duen sintomarik izan ote zuten galdetu zitzairen. %16k esan du ez dela izan duela, eta %41ek eztarikoa mina. Hau da, elkarrizketatutako gazteen erdiek baino gehiagok birusarekin lotutako sintomak izan zituzten. Hala ere, %8a bakarrik ikusi zuen mediku batek sintoma horiengatik (IKUS 48. IRUDIA).


48. Irudia. Azken egunetako sintomak eta medikuarengana joatea



3.8.5. | Aterpetxeen barruko egoera konfinamenduan

Konfinamendurako prestatutako aterpetxe guztiek modu eraginkorrean funtzionatu ez bazuten ere, kontuan hartu behar da kaletik aterpetxe batera sartzeko aukera izan zuten pertsonei nabarmen hobetu zietela bizimodua, kalean egotetik egunero leku berean lo egitera, bainatu ahal izatera eta benetan atsedean hartzera igaro baitziren. Hori dela eta, konfinamenduko kondizio horietan gustura zeuden galdetu zitzairen. Elkarrizketatutako pertsonen %80k adierazi du pozik dagoela aterpetxeen barruko kondizio batzuekin, hala nola bainugela eta dutxekin, oheekin eta, oro har, espazioarekin, baina %20 ez dago gustura zerbitzu horien kondizioekin. Bestalde, aterpetxe batean dauden parte-hartzaileen %70 gustura dago janariarekin. %88 arte gustura dago aterpetxean jasotzen ari den tratuaarekin, eta %67 pozik dago egiten diren jarduerekin. Aterpetxe-ko kideekiko harremanari dagokionez, %70 gustura dago. Alkoholarekin eta tabakoaren kontsumoari dagokionez, %71 ez dago ados alkohola eskuratzeari dagokionean, eta %43 ere ez dago gustura tabakoa eskuratzeari dagokionean (IKUS 49. IRUDIA).


49. Irudia. Pozik/atsekabetuta aterpetxe-ko baldintzekin



3.8.6. | Harreman-sareak eta/edo lagunak areagotzea baliabidean

Egoera berri horrek eta konfinamendu-errealitate behartuak beren harreman-sareak zabaltzeko eta beste pertsona batzuk ezagutzeko balio izan zezakeela pentsatuta, alderdi horri buruz hausnartzeko eskatu zitzaizen gazteei. Gehienek ez dute adierazten harreman-sareak handitu dituztenik. Parte-hartzaileen %34k ez du lagun gehiago egiterik lortu, eta %11k "gutxi" egin ditu. Bestalde, %44k lortu du lagunak "zertxobait" gehitzea, eta %11k bakarrik esan du lagun "asko" egin dituela (IKUS 50. IRUDIA).


50. Irudia. Lagun eta/edo harreman-sareen areagotzea



3.8.7. | Emozio positiboak konfinamenduan

Bestalde, konfinamenduan babesteko prestatutako aterpetxe batean plaza bat lortu dutenen kasuan, kaleko euren egoera arindu egin da. Hau da, pertsona horiek leku berean lo egin ahal izan dute, eta horrek egonkortasuna dakar, babestuta sentitu dira, egunero dutxatu ahal izan dira, arropa garbitu, egunero jan eta berokiak izan dituzte. Atsedean horri esker, fisikoki eta emozionalki indarberritu dira. Gazte batzuen egoera hobetu egin zela ikusita, izan zitzaketen emozio positiboei buruz galdetu zitzaizen. %78k alaitasun-emozioak sentitzen ditu, eta %81ek eta %89k, hurrenez hurren, animatuta eta itxaropenez daudela diote. %73a zoriontsu dago, eta %76 artekoak eskertuta daude (IKUS 51. IRUDIA).

51. Irudia. Emozio positiboak konfinamenduan



Bestalde, azterketa horretan parte hartu zuten gazteei 3 hitz esateko eskatu zitzaizen, konfinamendurako prestatutako aterpetxeetan ostatu hartzeari buruz. 52. irudian ikus dezakegunez, alderdi batzuek ongi funtzionatzen ez badute ere, gazteek aterpetheen alderdi positiboak nabarmentzen dituzte.

52. Irudia. Hiru hitz aterpetxeari buruz




3.8.8. | Konfinamenduko beldurrak

COVID-19 birusaren ezaugarrietako bat duen kutsatze-gaitasun handia da, eta horrek, egoeraren ezohikotasunarekin batera, beldurrezko emozio intentsoak eragin ditu biztanleriaren zati batean. Pertsonak beldurtuta daude, batetik, birusa kutsatzeak dakarren arriskuagatik eta, bestetik, gure inguruko pertsonak kutsatzeagatik. Hori gutxi ez balitz, ekonomiaren egoera larria da, jarduerak etetearen ondorioz.

Egoera ez da hobe bizileku bazterketa jasaten ari direnentzat. Etxeko konfinamendugaraiari baliabideetan plaza bat izatea lortu zutenek gero laguntzak lortu zituzten, baina plazarik lortu ez zutenak erakundeenganako ikusezin izaten jarraitzen dute.

Hori dela eta, birusarekiko eta haren ondorioekiko pairatzen dituzten beldurrez galdu zitzaien parte-hartzaileei. %56rentzat, berriz ere kalean bizitzeko beldur dira konfinamendu-egoera amaitzen denean, eta %54 izututa dago konfinamenduaren amaieran izango duen egoera ekonomikoarekin. %68 norbait kutsatzeko beldur da, eta %73 beldur da hurbileko pertsonaren bat kutsatzeko. %27k bakarrik du gaitasun horregatik hiltzeko beldurra, baina %38 beldur da birus honekin gaitotuko ote den (IKUS 53. IRUDIA).

53. Irudia. COVID-19arekiko beldurra




3.8.9. | Gaur egungo sentipenak

Gauza asko ikasi ditut denbora honetan. Jende askorekin egon naiz, maitatua sentitzen naiz, ondo nago fisikoki eta psikologikoki. Baina kezka ere baditut.

Zakaria, 27 urte

2020ko Alarma-egoerako konfinamenduak agerian utzi zuen kale-egoeran zegoen kolektiboaren egoera dramatikoak, eta horrek, ez bairik gabe, eragina izan du jendartean. Baina, zer gertatu da denbora horretan gazteekin? Zeintzuk izan dira euren emozioak, oso egoera ahulean eta babesik gabe egotean? Beren emozioak aztertzeko, nola sentitzen diren eta sentitu diren galdetu diegu. %78k kezka-sentimenduak ditu egoeraren aurrean. %49k beldurra sentitzen du, eta %43k segurtasun-eza. Gainera, %53k urduritasun-sentimenduak izaten ditu, %51k tristura-sentimenduak, %42k suminkortasun-sentimenduak, eta %57k nekatuta sentitzen dela dio (IKUS 54. IRUDIA).

54. Irudia. Gaur egungo sentipenak



3.8.10. | Etorkizuneko ikuspegia

Nire ametsak ditut

Ayoub, 24 urte


Etorkizunean hemengo jendearekin lan egingo dut eta haiekin biziko naiz.

Rachid, 19 urte

Parte-hartzaileen etorkizunarekin lotutako pentsamendu eta sentimenduei dagokienez, 55. irudian ikus dezakegunez, %84k uste du, egoera zaila izan arren, aurrera egin ahal izango dutela, horretarako behar diren trebetasunak baitituzte. Ildo beretik, %92k uste du bere ezaugarri pertsonalei eta baliabideei esker, aurkezten zaizkien egoerak gainditu ahal izango dituztela, eta %92k, berriz, aurrera ateratzeko gai izango dela uste du. Era berean, pertsonen %84k uste du gauzak hobetu egingo direla.

Bestalde, azpimarratzekoa da %38k uste duela gauzak okerrago joango zaizkiela, eurei eta egoera berean dauden beste pertsona batzuei, eta erdia baino gehiagok (%57) ziurtasun-eza du gerta litekeenarengatik.

55. Irudia. Etorkizuneko ikuspegia



4

AZTERKETA KUALITATIBOA

Adituen ikuspegia

4.1.

HELBURUAK

H.O. 1. | Gipuzkoan kaleko egoeran dauden gazte etorkinen kolektiboaren egoeraren ikuspegi zabalena ezagutzea

| Adituen ikuspegia zein den jakin nahi dugu, hala gazteen beharren ezagutzatik abiatuta, nola haien eskubideen ezagutzatik ere, eta hori nola islatzen den harrera-testuinguruaren ikuspegian.

H.O. 2. | Gazteek alarma-egoeran duten egoerari buruz adituek egiten duten balorazioa ezagutzea

| Etxerik gabeko pertsonen kolektiboarekin lan egiten dutenek ezagutzen dituzte haien beharrak eta horiek nola gainjarri ziren konfinamenduan sortutako beharrekin.

O.G. 3. | Adituek alarma-egoeraren ondoren egiten duten balorazioa ezagutzea

| Erabiltzaileek egiten duten balorazioarekin alderatu nahi dugu, jasotako informazioa triangeluarra izan dadin.

4.2.

METODOA

4.2.1. | Parte-hartzaileak

Kolektibo horrekin lan egiten duten eragile adituak elkarrizketatu ziren. Lagina intentzioskoa izan zen, boluntario gisa eta hainbat elkartetako, adin txikikoen zentroko hezitzaile eta emantzipazio-programetako langile gisa lan egiten duten pertsonekin jarri ziren harremanetan; esperientzia alarma-egoeraren aurrekoa da, eta egoera horretan gaude.

4.2.2. | Lagina eta prozedura

Ikerketaren arduradunak eragileekin harremanetan jarri ziren eta azterketan parte hartzeko gonbita egin zieten. Hitzordua adostuta, elkarrizketa batzuk aurrez aurrekoak izan ziren eta beste batzuk bideo-dei bidezkoak. Audioa elkarrizketatuek baimena eman ondoren grabatu zen, ondoren transkribatzeko. Bildutako materiala ikerketa honetarako soilik erabiliko da. 15 elkarrizketa egin ziren, eta bakoitzak 35 minutu eta ordubete artean iraun zuen. Praktika profesionaletan zeuden psikologiako ikasleek egin zituzten, 2020ko abuztutik irailera bitartean.

Elkarrizketak erdiegituratuak izan ziren, galdera irekiekin, hala nola: "Alarma-egoeraren aurrekoa, konta ezazu neska-mutil etorkin gazteen egoeraz duzun pertzepzioa (egoera orokorraren balorazioa, jasotako arreta, baliabideak)"; edo "Zer egin behar du ten neska-mutil gazteek gure gizartean sartzeko, zer ibilbide egiten duten".

4.2.3. | Datuen azterketa

Diskurtoek gizarte-praktikak egiteko aukera ematen diguten oinarritik abiatuta (Fairx-lough, 1992), azterketa semantiko baten bidez, eragileen diskurtoaren deskribapen zehatza egituratu zen, hiru ardatz tematikotan oinarrituta:

- I. Kaleko egoeran dauden gazte etorkinen egoitza-esklusioaren ikuspegi orokorra.
- II. Alarma-egoeran, kaleko egoeran dauden gazte etorkinen egoera baloratzea.
- III. Alarma-egoeraren ondorengo balorazioa.

Ondoren, adituen perspektibak hobekien deskribatzen zituzten egiturak atera ziren, gai-ardatzen arabera.

4.3.

EMAITZAK. KALE-EGOERAN DAUDEN
NESKA-MUTIL GAZTE ETORKINEN
EGOITZA-ESKLUSIOAREN IKUSPEGI OROKORRA

Etorkin gazteen etxegabetasun-egoeraren ikuspegi orokorra eskatzean, agenteek hainbat puntu azpimarratzen dituzte. Lehenik, beren herrialdeetatik datozen egoerak azaltzen dituzte. Kasu batzuetan, familiek aukeratu eta babesten dituzte Europara etortzeko, hemendik ekonomikoki laguntzeko aukera izango dutelakoan. Espainia herrialde hautatua da, beraientzako babes handiagoa eskaintzen duelako. Baina gerta daiteke, halaber, familiaren laguntzarik gabe etortzea, eta haien familiek ez jakitea etorriko direnik ere, baina, hemen daudenean, haiekin harremanetan jartzen dira. Horregatik, migratzeko arrazoiak eta moduak askotarikoak dira, pertsona bakoitzak egoera berezi bat du, eta egoera hori modu desberdinean eta pertsonalizatuan landu behar da. Nabarmendu beharreko beste puntu bat da 2018-2019 urteetatik aurrera gazteen etorrerak ikaragarri egin zuela gora, eta gizarte-zerbitzuek gainezka egin zutela, garaiko baliabideekin ezin izan baitzituzten oinarritzko beharrak ase.

Familiar-migrazioa da arrazoirik ohikoena, eta beren herrialdeetatik etortzen dira familiari laguntzeko eta ekarpenak egiteko; izan ere, familiartekoei aukeratzen dituzte gazteok, existitzen ez den eta errealitateetik hain urrun dagoen 'europar amets' hori lortzeko...

emakumea, 25 urte

Europar Batasunak, eta Espainiak bereziki, itzelezko erakarpen-indarra du jende gazteengan eta are adingabeengan, babes-maila handia eskaintzen dielako.

gizona, 70 urte

Bat-batean, 2019an, hainbeste jende heldu zen, ezen baliabideak eta prestazioak eskatu egin ziren, eta gazte asko hainbat hilabetez egon ziren oinarritzko beharrak ase gabe, hala nola janaria, dutxa, ohea...

emakumea, 32 urte

Gainera, sistemaren blokeoaz mintzo dira, lan egiteko baimenik eta bizitzeko laguntzarik gabe; horrek guztiak gizarteratzeko bidea eragozten du.

Ertz askotatik blokeatuta egotearen sentsazio horri aurre egin behar diote: lanerako baimenik gabeko dokumentazioengatik, baldintzak ez betetzeagatik prestazioak eskuratzeko zailtasunak eta aurrera egiten uzten ez dieten hamaika oxtopomodurengatik.

emakumea, 32 urte

Bakarrik dauden adingabeen egoera deskribatzen dute adituek. Izan ere, 18 urte betetzear, Estatuak tutore izateari uzten dio eta, ondorioz, oinarriko laguntzarik gabe edo inolako akonpainamendurik gabe geratzen dira eta gehienak kale-egoeran.

Adibidez, 2019an, urtearen hasierako harreretara, gazte mordoa etorri zen Ceutatik, Melillatik, Estatu osoko adingabeen zentroetatik. 18 urte betetzear, kalean geratzeagatik. EAEn azaldu ziren, bertako zentroengatik, lagunengatik... baina, jakina, ez zekiten ordurako politika egiteko moduak aldaketak izan zituela eta, Gipuzkoa hain zuzen ere, ja ez zela garai batekoa.

gizona, 28 urte

Horren ondorioz, 18 urte betetako gazteek, bai beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoek, bai Gipuzkoan tutoretzapeko adingabeak zirenek, hilabete batzuk eman dituzte kale-egoeran, baliabideren bat eskuratzeko deribazioa egiteko zain. Badira ere, 18 urte bete eta zuzenean etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuetara sartzen direnak, ebaluazio baten zain.

Neska-mutil gazte horien zaugarritasun-maila aipatu dute eragileek; izan ere, haien adineko edozein pertsonak bezala, helduen bizitzan murgiltzeko, beharrezkoak diren nortasuna eta trebetasunak garatzeko bizi-unean baitaude.

Hilabete batzuk ematen dituzte kalean eta ez diete laguntzarik ere eskaintzen emantzipazio-errekurso bat atzitzeko, 3, 4 edo 6 hilabetetan kalean egon ez daitezzen. Horrek mozketak bat suposatzen du prestakuntza-ibilbidearen zati handi batean, eta ezinbestean narriadura eragiten du. Kontuan hartu behar da adin jakin batzuetan pertsonen nortasuna lantzen eta garatzen dela.

gizona, 70 urte

Adituak kolektiboaren prekarietate-egoeraz mintzo dira, eta oinarrizko beharren ga-bezia deskribatzen dute: lo egiteko leku-eza, garbitzeko betarik eza, egunean gutxienez jaki bat izateko aukera-eza, eguna pasatzeko lekurik ez izatea eta egoera horrek dakartzan arriskuak eta segurtasun-falta, esaterako. Hala eta guztiz ere, horietako batzuek eutsi egiten diote eta pixkanaka dauden baliabideetara iristea lortzen dute.

Oinarrizko beharrak asetu gabeko egoera prekarioan dauden gazteak dira, eta lor ditzaketan baliabideak oso txikiak dira; adibidez, ohe bat izatea lotarako baka-rrik eta egun osoa kalean pasatzea, eta itxaron-prozesu oso luzeak izatea eskubi-deak bermatzeko (erroldagatik, denboragatik, akonpainamendu batean sartzeko denboragatik). Orduan, egoera horren aurrean, gazte horiek modu desberdinean erantzuten dute, eta askok gaitasuna dute -auskalo nondik ateratakoa- hori guztia gainditzeko eta denboran irauten jarraitzeko, lehen aipatu ditudan baliabideetara pixkanaka-pixkanaka sartuz, autonomia-prozesuan aurrera eginez. Egoera oso konplexuetan egoteko arriskua bizi dute, haietatik ateratzea lortuz ala galtzeko arriskuan eroriz.

emakumea, 25 urte

Gainera, eragileek gazteen gizarte-estigmatizazioa azpimarratzen dute, gizarteak, oro har, estigmatizatu eta kriminalizatu egiten baitu kolektibo hori. Izan ere, kolektibo horren gutxieneko zati batek delituak egiten ditu; gehienak baitira inklusio eta prestatuntza-ibilbide bat egiten ari ziren gazteak, eta 18 urte betetzean babesgabetasunik eta akonpainamendurik ezak eten egin du bide hori.

Etorkin gazteak, baita BADAk ere, gehienak irudi gisa, eta neurri batean errealitate gisa, magrebtarrak dira, oso estigmatizatuak, oso kriminalizatuak... Noski, horrelako egoerak badaude, baina ehunekotan oso txikiak dira, eta, hein batean, oso garrantzitsua ere, marjinaltasun-egoeraren ondorio dira. Egoera horretara bultzatzen dira, ez baitute arreta-zerbitzurik, hemengo beste gazte batzuek bezala, prestatuntza-ibilbide bat egin ahal izateko, hau da, lan-merkatuan sartzeko. Hona etortzea bultzatu dituzten ideiak, asmoak eta proiektuak ezin errealitate bihurtu.

gizona, 70 urte

Gizarte-eragileek esan dute gazte horiek bizitza-proiektu batekin etorri direla lanera eta erakundeak ez direla puntu hori kontuan hartzen ari. Estatuak gazte adingabe horiek bere ardurapean eduki dituen bitartean egindako inbertsio ekonomiko guztia alferrik galtzen da. Gazteek tutelatuak izateari uzten diotenean eta kalera joaten direnean sortzen den legezko hutsuneaz mintzatzen dira; gizarteratze-bidea moztuta utziz, bai eta lan-prestatuntza galduz.

Gehienak lan egiteko ideia argia duten gazteak dira. Faktore hori oso kontuan hartu beharko lukete erakundeek.

gizona, 70 urte

Kontuan hartu behar da adingabeen zentroan dauden neska-mutiko bakoitzeko urtean 30.000 euroko inbertsioa dugula. Dena pikutara joaten da; izan ere, adingabeen zentrotik atera eta baliabidean sartu arte, jende asko bidean galtzen zaigu, kalean geratzean.

emakumea, 50 urte

... baina, batez ere, adin-nagusitasuna betetzean eta erakundeen ardurapean egoiteari uzten dioten gazteekin. Orduan, hutsune legala egoten da. Gainera, aurretik egin den inbertsio guztia galdu egiten da.

emakumea, 32 urte

Egia da babesgabetasun-egoera oso larrian daudela, gizarte-zerbitzuen mapatik kanpo geratzen direlako eta sartzeari lortzen dutenean, zailtasunak izaten dituztelako sarrera baldintzak betetzeko. Eta betetzen dituztenean, Atzeritarren Legea dago atzetik, garapen pertsonalerako eta sozializaziorako oztopo handia sortzen duena.

gizona, 55 urte

Eragileek aipatzen dute gazte horiek eurentzat dauden baliabide urrietara iristeko egin behar duten ibilbidea. Erroldatu ahal izateko, kalean itxaron beharreko denbora; errolda lortu ondoren, laguntza eskatzeko zain egotea. Laguntza hori ez zaie nahitaez eman-go, oso plaza gutxi daudelako eta asko gabe geratzen dira. Horrek atzerapen psikologiko eta emozionala eragiten die, kasu askotan oinarritzko eta laguntzazko beharrak asetu ondoren gainditzen dituztenak. Gainera, gizarteak, oro har, ez die errazten, beti pertsona desberdin eta kanpoko gisa ikusten baititu.

Ibilbide gogorra dute. Egia da bakoitzaren egoeraren arabera dela, gehienek hasieratik izaten baitituzte oztopoak. Lehenik, gutxienez 3 hilabete itxaron behar dute erroldatu ahal izateko, edo polizia beren dokumentuak konfiskatzen dituen egoeran ikusten dira. Gero, gutxienez 6 hilabete itxaron behar dute laguntza eskatu ahal izateko, eta, gainera, plaza gutxi daude. Orduan, gehienak etxerik gabe geratzen dira, lagun batekin geratzea bezalako alternatiba bat bilatzen ez badute. Egia da, halaber, oso ahulak ez badira behintzat, gazteek atzerakada psikologiko eta emozionala gainditzen dutela.

emakumea, 28 urte

... orduan, hilabete horietan guztietan, ohe bat izan arte edo jangela batera sartu arte, gazteak oso egoera bidegabean zeuden, duintasunik gabekoak, oso zailak... etxe okupatuetan, txaboletan edo zubiaren azpian... eta polizia presio handia egin zuen Donostian. Ikus zitekeen, itxaronaldi hilabete horietan, gazteak mentalki gaixotuz zihozela, eta azkenean, agindutako botikekin sartzen zirela aterpetxean.

emakumea, 32 urte

Adituek nabarmentzen dutenez, gazte horiek nerabeak dira, eta beste edozein nerabek bezala, beren nortasuna garatzen ari dira eta egoera horretan ezintasunez beteta daude; horrek zaildu egiten du gizarteratzeko eta heldu gisa garapen integrala lortzeko bidea. Gizarte-estigma, kultura-distantzia, familiak urruti izateagatik euskarri emozionalik ez izatea eta, kasu batzuetan, beren familiei ekonomikoki laguntzeko bete ezin duten promesaren pisua. Hori guztia, gizarteratzeko eta lanerako nahiak zapuzten dituen Atzerri-tar Legearekin batera.

Alde batetik, beste edozein gazteren ibilbidea da; hau da, saiakuntza akatsa da, bokazioa aurkitzea, pixkanaka prestakuntza- eta lan-orientaziora jotzea, ikas-kideekin sozializatzean arrakasta izatea edo ez izatea. Baina horiek mehatxuz inguratuta daude, eta mehatxuok zerikusia dute estigma sozialarekin, familia trans-nazionalarekin, harreman horiekin guztiekin eta sortzen duenarekin, familiaren erantzukizun bikoitzarekin, kulturen arteko elkarriketarekin. Baina, batez ere, Atzerri-tar Legearen oxtopoarekin; izan ere, lege horrek zapuztu egiten du harrera-gizarteari emateko duten ahalmena. Eta azken hori oso sinbolikoa da, pertsona horien eta gizartearen arteko zubiak hausten baititu.

gizona, 38 urte

Gainera, eragileek azpimarratzen dute estresa eragiten dien polizia-jazarpena pairatzen dutela neska-mutil gazteek, eta ezin direla lasai egon eta beti defentsa-egoeran egon behar dutela, horrek eragiten dien beldurragatik. Egoera pilo horren ondorioz, indarra eta ilusioa galdu egiten dituzte, migrazio-proiektua trunkatua ikusiz. Gure gizarteak baztertu egiten ditu; alde batetik, atzerriartasunari buruzko legeak ez die uzten lan egiten gutxienez 3 urte Espainiako estatuan bizi izan arte, eta, bestetik, ez dago baliabiderik itxaronaldi horretan duintasunez bizitzeko.

Bestalde, oso zaurgarriak dira polizia-jazarpenagatik. Beraz, etengabe egoten dira erne, eta ez dute emoziozko lasaitasunik. Gero, termino ekonomikoetan, ez dute garraiorako dirurik. Estigmak, halaber, magrebtar izateak maizago geldiarazten ditu, eta hori ohiko jarduera da.

gizona, 40 urte

Kaleko egoera, polizia, gizartea, erakunde arrazistak, espetxea, buru-gaixotasunak, deserrotzea, itxaropenak haustea. Gogoa eta indarra galduz doa, aipatu ditudan arrazoiengatik.

emakumea, 32 urte

Adituek adierazi dute ezen, denboraren poderioz, kale-egoeran dauden neska-mutil gazteak, emozioen eta adimenaren hondamenaz gain, ezin badute ondo elikatu, eta egunero dutxatu, hondamen fisikoa nabaritzen hasten direla, elikadurarik ezak desnutrizioa eragiten diela; urtebeteren buruan, fisikoki, buruz eta emozionalki okerrera egiten dute.

... mutiko bat iritsi eta urtebetera, aldaketa fisiko nahiko nabarmena dago, eta pentsatzen dut elikadura-gaiekin ere zerikusia duela... esaten den moduan... euskaraz ateratzen zait... oinarritzko behar bat ere ez dago asetua, beraz, horrek bizitza oso prekarioak sortzen ditu.

emakumea, 32 urte

Bada, esan dezagun, Caritasko jantoki bat, non denbora luzez egon behar izan duten zain, hiru hilabeteko itxaron zerrenda bat jantokira sartu arte.

emakumea, 50 urte

Donostiako Udalean udalaren dutxak daude. Baina haietara sartzeko, tiket batzuk izan behar dituzu. Gurutze Gorriak banatzen ditu tiket horiek, gizarte-zerbitzuek ere ez baitituzte banatzen, eta guztira 10 tiket ematen dizkizute hilabete osorako.

gizona, 40 urte

Eragileek gaineratu dute talde batzuk erakundeen eta iritzi publikoaren arreta erakartzen saiatzen ari direla, kolektiboarentzako baliabide gehiago eskatuz. Erakundeek gazteen egoerari nola heltzen dioten. Adituen ustez, kolektiboaren egoera ez ezagutzea estrategia politikoa da, "dei-efektua" eragozteko. Haien esanetan, erakundeek gazteen egoera hobetzeko asmoa badute, baina aldi berean, ez dago kolektiboarentzako laguntzeko benetako plangintzarik. Ondorioz, 150-200 gazte artean inolako babesik gabe daude.

Gizarte-talde jakin batzuek erakundeen eta, are, iritzi publikoaren arreta erakartzen ari gara, gazte-profil horretarako baliabide nahikoak sortzeko eskatuz. Hori, Covid-en pandemia baino lehen, ez zen aski eta erakundeek ez zuten modu integralean ekiteko asmorik.

gizona, 70 urte

Nik uste dut hemengo estrategia politikoa, bai Espainiakoa, bai Eusko Jaurlaritzarena edo Donostiako Udalarena, berdina izan dela, zenbat eta jende gehiago etorri, ikusi dute moztu egin behar zutela, eta moztu egin dute. Orain ez dago etxebizitzarik gazte horientzat, eta politika pixka bat izan da, jasan dezatela, jasan dezatela, jasan dezatela... ea alde egiten duten.

gizona, 38 urte

Bada euskal estrategia nazional bat, etxerik gabeko pertsonentzako 2018-2021eko estrategia bat, mota horretako kontu guztiak jasotzen dituen, baina bai hori, bai zorroaren dekretua, bai gizarte-zerbitzuen dekretua, eta abar, ez daude martxan, ezta hori ahalbidetzen duten aurrekontu-sail batzuk ere... Hori nahikoa litzateke egoera dramatiko hori pairatzen duten pertsonentzat.

gizona, 70 urte

Gipuzkoan 150 edo 200 pertsona ingururi buruz ari gara, eta hortik kanpo geratzen dira, gizarte-zerbitzuen arretatik kanpo. Ez da batere zifra erabilezina... "dei-efektua", hau da, jakina, tira, tira, hori guztia ondo tratatuz gero, jende gehiago etorriko da.

gizona, 70 urte

Gainera, gazteei laguntzea eta lan-merkatutarako prestakuntza hobea ematea azpimarratzen da.

Denbora guztia, hiru urte gutxienez, igaro behar badute ere zain, gero, urtebeteko kontratua lortzean, erregularizatu egin daitezke; ibilbide horretan lagunduta egon behar dute, ez dezaten okerrera egin eta prestakuntza-xedapen hobek izan ditzaitez, eta abar, lan-merkatuan sartu eta bizitza beste edozein pertsona autoktonok bezala bilatu ahal izatek.

gizona, 70 urte

Agenteek salatu dute gazteak baloratzen diren orduan txandako gizarte-laguntzailearen irizpidearen mende egoten direla, ebaluazio horretarako protokolo argirik ez baitago. Halaber, salatu dute "gizarte-bazterketako arriskuan" baloratuz gero, lehen mailako zerbitzuetara itzultzen direla, hau da, berriro ere udalera bidaltzen direla; aldiz, "gizarte-bazterketako egoeran" baloratzen badira, Aldundira bidaltzen dira eta aurrera egiteko beste laguntza batzuk eska ditzakete.

Administrazioak baloratu egiten du kalean bizi den jendearen egoera, sei hilabetez errolatuta egon ondoren. Balorazio horretan, Aldundiaren baliabideetara bidertatzen dituzte, dela emantzipazio-pisuetarako, dela akonpainamendurako; azken honetan sei hilabete egin ondoren PEJO izeneko laguntza eska dezakete, 600 euro baino gehiagokoa izan ohi dena. Baina denboraren poderioz, baliabide horiek eskuratzeko ezetz, baita itxaron-zerrendak ere, asko luzatzen ziren denboran zehar,

balorazio mota aldatu egin baitute: gaur egun, arriskutzat jotzen ditu, ez bazterketatzat. Eta berriz ere oinarritzko laguntzetara bideratzen ditu. Orduan, udalen mende geratzen dira eta udalek ez dute horiek hartzeko baliabiderik.

emakumea, 33 urte

Gainera, alokairurako dauden laguntzak kritikatu dituzte; lehenik, erroldatuta egon eta sei hilabete igaro behar dituztelako, eta alokairuaren zenbatekoa osorik estaltzen ez dutelako, %70 bakarrik, eta falta dena ordain dezaketela frogatu behar dutelako.

Sei hilabetez erroldatuta egon ondoren, alokairurako laguntza batzuk daude, eta hori da beste handicap bat, ostatua izango denaren %100 ere ez dizutelako estaltzen. %70 estaliko dute, baina frogatu behar duzu beste %30 eskuratu dezakezula, kontuan hartuta gazte migratzaileez ari garela.

emakumea, 50 urte

Halaber, salatu dute, nahiz eta gazteek 3 urte daramatzaten lurraldean, 23 urte ez badi-tuzte, ezin dutela Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratu.

Beste arazo bat dugu: gazteak direnez eta gehiengoa 23 urtera iristen ez denez, nahiz eta 3 urte daramatzaten erroldatuta, ezin dute DBEa eskuratu.

emakumea, 50 urte

Eragileek diote zailtasun nagusietako bat erroldatzearekin lotuta dagoela. Hori areagotu egiten da, udalerrri guztietan ekintza protokolo egokirik ez dagoelako etxegabekoen aurrean. Gainera, aipatutako protokolo hau duten udalerrietan, erabakia txandakako gizarte zerbitzuetako pertsonaren esku uzten da. Protokolorik ez dagoenetan, aukerak zero dira.

Beste arazo larri bat erroldatzea da. Erroldatzea eskubidea da eta betebeharra da, baina udalek ez dute protokolizatuta nola erroldatu etxerik ez duten pertsonak... Udalerrri donostiarrak gizarte-langilearen irizpidearen arabera egiten du lan; alegia, ez dut ulertzen gizarte-langilearen esku uztea egoera, haiek erabakitzen dute ea erroldatzen dituzten, baina gazte horietako askok ez dute dokumentaziorik.

gizona, 55 urte

Era berean, adituek adierazi dute gazteek ez dutela nahitaez erroldarako behar duten dokumentazioa, eta dokumentazio hori eskuratzeko kostu ekonomikoa dakarrela, ezin diotelarik aurre egin bizi duten gizarte-bazterketako egoeran. Dokumentuen kudeaketa errazteko baliabiderik ere ez dago; beraz, hiru hilabeteren buruan, erroldatze-eskaera iraungi egiten da, eta berriro hasi behar dute prozesua, kasurik onenean, Afrikako hainbat herrialdek ez dute pasaportetik ematen; beraz, gazte horiek ezin dira erroldatu, sistematik kanpo geratzen dira eta ezin dute Espainian bizi direla frogatu.

Bestalde, dokumentazioa lortzeko, arlo ekonomikoaz hitz egin behar da. Donostiako Udalak... Erroldatuta ez bazaude, ez dizu laguntzarik ematen hiru hilabete iraungi ondoren erroldatze-eskaera hau lortzeko.

emakumea, 33 urte

Marokoarrei laurogeita sei euro kostatzen zaie pasaportea ateratzea. Lehenik eta behin, Gutun Nazionala egin behar dute, eta gero pasaportea... Beste nazionalitate batzuetan 200 euro baino gehiago ordaintzen dute pasaportea atera ahal izateko. Badira Ginea Conakry, Aljeria eta beste nazio bitxiren bat non enbaxadek edo kontsulatuak ez duten pasaportetik ematen; orduan, linboan geratzen dira.

emakumea, 50 urte

Bada beste arazo bat eragileen ustetan: garraiorako diru laguntzarik eza.

Beste arazo bat garraiorako dirurik eza da; izan ere, batzuetan, leku batetik urruti geratzen den beste batera joateko eskatzen zaie, eta horrek erraztasunak baino oztopo gehiago sortzen ditu.

emakumea, 50 urte

Entitate bakoitza hiriaren mutur desberdinetan dago; beraz, pertsonak, gauza horiek guztiak eduki ahal izateko, alde batetik bestera ibili behar dute.... Kontuan izanda, gainera, ez dutela garraio publikorako aukerarik, ez eta horrelako ezer ere.

emakumea, 33 urte

Gainera, gazte batzuek lan-prestakuntza jasota etortzen dira beren herrialdeetatik, baina ez dute baliozkotze-prozesurik.

Erantsia duten beste arazo bat ikasketak baliozkotzea da; izan ere, pertsona batzuek jatorrizko herrialdeetan dituzte ikasketak, eta ez zaizkie baliozkotzen, titulazioaren eta jatorrizko herrialdearen arabera, konplexutasun-maila dela eta.

gizona, 40 urte

Eragileek diote emantzipazio-pisu batean sartzea lortzen badute, oso zurrinak direla; eta arautik ateratzen badira, berehala kanporatzen dituztela, berriro ere kale-egoeran egoteko. Aurrerantzean, prozesua berriro hasi behar dute, beste balorazio bat eskatuz.

Aipatu behar ere, gela bat alokatzeko laguntza lortzen badute, aurreiritzi sozial handia dagoela kolektibo horrekin, eta, beraz, oso zaila zaiela norbaitek eurei alokatu nahi izatea.

Eta ikusten dudan beste arazo bat da emantzipazio-pisuetara sartzen direnean ere oso zorrotzak direla, eta edozein akatsekin, kalean jartzen dituztela. Eta horrek ondorio oso larria dakar; izan ere, 6 hilabete igaro arte, ezin da egoerari buruzko beste baloraziorik eskatu, eta, beraz, sei hilabetez itxaron behar dute eskatu ahal izateko, gehi dagokion denbora erantzuna jasotzeko.

gizona, 38 urte

Bereizkeria-eremu garrantzitsua dago. Bertakoa ez den norbaitek logela bat alokatu nahi duenean sinestezina da: beltza izateagatik, edo latinoak, edo magrebertarra, edo dena delakoa izateagatik, ez diote alokatuko. Eta, orduan, hori ere aldatu egin behar litzateke herritarrengan, eta erakundeek ere eragin handiagoa izan lezakete horretan, herritarrek uler dezaten talde jakin batzuekin diskriminatzailerak direla.

gizona, 70 urte

Adituen ikuspegitik, gazteak benetan integratu nahi izanez gero, baliabideak banatu egin behar lirateke udal guztien artean, oraingoaz hauek Donostian zentratuta baitaude, eta horrek etorkin gazte guztiak hiri honen inguruan egotea dakar. Baliabideak probintzia osoan banatuz gero, gizarteratzea erraztuko litzateke, bertako pertsonekin nahastean, ghettoak eratzea saihestuz.

Oso gauza garrantzitsua litzateke udal guztiek baliabide horiek izatea pertsona horiek ghetto batean bezala egon ez daitezela; izan ere, azkenean, beraiek elkarrekin bizi dira egun osoan, eta, beraz, oso zaila da korapilo horretatik ateratzea.

emakumea, 50 urte

Eragileen iritziz, badira hirian gazteentzako beste programa batzuk, oso garrantzitsuak eta positiboak izango liratekeenak, haietan parte hartuko balute. Adibidez, drogen kontsumoaren prebentzioan lagunduko lukete. Hala ere, oso zaila da programa horietan parte hartzea, oinarritzko beharrak asebetek ez badituzte.

Sabaia eta janaria ezinbestekoak dira... Bai, bai, bai, beste gauza batzuk ere badaude haiek egiteko, futbol-taldeak eta... Tabakaleran badago antzerkia egiteko programa bat ere. Badira gauzak... baina, noski, lorik egiten ez duenak, edo jatekorik ez duenak, eta abar, beste ezer egiteko gogo zipitzik ez du izango.

emakumea, 50 urte

... oso garrantzitsua litzateke kirolean sartzeko aukera izatea. Horietako asko kirolariak dira, eta bestelako kontsumo eta arazoak saihesteko modu bat ere bada, ezer egin gabe eta kalean egon beharrean.

emakumea, 50 urte

4.3.1. Konfinamenduaren egoeraren balorazioa

Adituek ikuspegi kritikoa dute erakundeek egiten duten lanari buruz gazte etorkinen kolektiboari dagokionez. Lehenik, osasun-larrialdi garaikoa konfinatzeak agerian utzi zuen administrazio publikoek ikusi nahi ez zutena. Bigarrenik, adierazi dute laguntza-dispositibo bat antolatu zela, baina ez zela kaleko egoeran zegoen jende guztiarentzat izan, plazak ez baitziren nahikoak izan..

Covid-arekin, erakundeek ezagutzen ez zuten errealitate baten tamaina agerian geratu da.

gizona, 50 urte

...egoera horretan zegoen jendearen irudi argia izateko aukera eman digu, gutxienez erakundeek arazoaren berri izan dezaten edo hainbesteko ezikusiarena egin ez diezaioten.

emakumea, 33 urte

Plazak ez ziren nahikoak, eta ikusten dudan arazo nagusia da, plaza nahikoak ez izateaz gain, kalean ere ez zaiela zaindu ezta kasurik egin ere.

emakumea, 28 urte

Halaber, azpimarratu dute plangintza falta egon zela, ez zirela elikadura-higiene-behar oinarritzkoak bete. Areago, gazteak sar zitezkeen leku guztiak itxi ziren.

...elikatze-beharrak behar bezala ase izan ez dituztelako... elikatze-baliabide batzuk moztu direlako. Ezagunena, Caritasena, jantokia ere itxi egin baitzen... Ezin da onartu gosea pasatzea, gosea pasatzea izugarria baita.

gizona, 70 urte

Konfinamenduan, espazio publiko guztiak itxi dira, eta ezin izan dira WiFi bidez konektatu, ez eta mugikorrak kargatu ere; batzuek mugikorra behar zuten, baita gizarte-zerbitzuekin harremanetan jartzeko ere, gaur plaza dudak jakiteko, ez ote dudak...

emakumea, 50 urte

Gainera, ez zen laguntza integralik izan, ez zitzaizen azaldu zer gertatzen ari zen, ez nola jokatu behar zuten, ez zen zaintza psikologikorik izan, ezta akonpainamendu bat ere. Gazteak babesik gabe, abandonatuta sentitu ziren.

Lehenengo gauza ez zaie ezer azaldu, ez zer gertatzen zen, ez zer egin behar zen ezta zein ziren arauak ere.

emakumea, 28 urte

Gai emozional guztia ere ez da ezertarako landu; kalean egotetik itxita egotera ondo antolatu ez den erabateko aldaketa izan da.

gizona, 27 urte

Espazio publiko guztiak ixtean, gazteak ez ziren Interneten sartzen, ezin zituzten beren mugikorrak kargatu, eta konfinatzeko lekurik ez zutenek ezin zuten informazio hori eskuratu. Hirian zehar joan behar izan zuten plazaren bat zuten ikusteko, eta horrek arrisku bat zekarren polizia-jazarpenagatik eta "etxeetan geratzeko" eskakizunagatik.

Nik uste dut garai hartan nahasmen handia, mesfidantza, babesgabetasun handia sentitu zutela, oro har. Baina egia da, halaber, egoerak oso muturrekoak zirela, pilaketakoak, bigarren fasera arte baliabide gehiago ireki zirela. Gaixotasunagatiko beldurra ere izan zen, familiarengandik oso urruti harrapatu zituelako sentsazioa. Estres-egoera hori ere. Batzuk egoera erlijiotik ulertzen saiatzen dira...

gizona, 55 urte

Eragileen esanetan, gizarte-zerbitzuek planifikatu gabe utzi zituzten etxerik gabeko pertsonak. Espazio publikorik ez zegoenez, pertsona horiek ere ez zuten ez komunik, ez dutzarik, eta are gutxiago arropa non garbitu.

Fabrika abandonatu batean jarri zen dutxa, 40 pertsona baitzeuden, baina ia konfinamendu erdia igaro arte, ur hotzarekin egon ziren. Ur hotzeko dutxa bat 50 lagunentzako, aire-korrontez betetako lekuan.

emakumea, 50 urte

Alegia, eraikin abandonatuetan dauden pertsona horietako batzuek aste batzuk eman dituzte dutxetara sartu gabe eta ezin arropa garbitu, adibidez; higieneari dagokionez horrek dakarren guztiarekin. Hiriko ur korrontearen iturriak moztuta. Garrantzi gutxiko gauzak dirudite, baina garrantzi handia dute osasun publikoan, pertsonen osasunean, ongizatean.

gizona, 70 urte

Langileek nabarmendu dute gizarte-zerbitzuetan gainezka zeudela, eta baliabide falta zegoela, nahiz eta kolektibo horri erantzuteko guneak prestatu ziren. Langile falta izan zen, eta gizarte-zerbitzuek ez zuten koordinaziorik eta malgutasunik izan sendagaiak ematean.

Nik uste dut arazo nagusia zetzala, hau guztia hasi aurretik gizarte-zerbitzuak gainezka zeudela. ... iristen zen jende berriari gizarte-langile bat egokitzeko, itxaron-zerrenda baten mende egon behar zuen.

gizona, 50 urte

Sendagaiak eskuratzeko, gizarte-gaiek zuten protokoloa ez da mugitu. Orain arte aginduta zenituen botikak bakarrik ematen zizkizuten.

emakumea, 33 urte

...ez ziren ondo zaindu osasun-kontuetan. Aterpetxeetako helburuak zeintzuk ziren, azaltzen ere ez zen asmatu. Eta ez zitzaien utzi etorkizuneko erabakien parte izaten.

gizona, 27 urte

Eragileek elkarrean eta komunitatearen lana gogoratzen dute, gizarte-zerbitzuek bere gain hartzen ez zituzten elikadura-gabeziak betetzeko.

Eta hori ez, ez da behar bezala bete. Beste erakunde-mota batzuk: herritarren harrera-sarea, SOS Arrazakeria, Kolore Guztiak, Arrats, Hestia, Haurralde eta horrelako erakundeek bai. Caritas-ek, ez..”

gizona, 70 urte

Adituak bat datoz konfinamendu-lekurik txarrena Atano frontoia izan zela adieraztean. Kudeaketa ezin okerragoa egin baitzuten kolektiboa konfinatzeko orduan, profil oso desberdineko pertsonak elkartuz, haien ongizatean eta segurtasunean pentsatu gabe.

Atano pilotalekuan, adibidez, ia 100 pertsona sartu ziren hasieran, bata bestearen ondoan, profil guztiz desberdinekin. Kale-egoeran zegoen jende horren zati batek bazituen egoera psikiatriko edo alkohol-mendekotasun oso konplikatuak, eta egoera horretan, kalean zegoen jendea ere iritsi zen, eta esan zuen... ni banao hemendik, are eta okerrago nagoelako hemen... Instalazio hori, gehienez ere, zubi-elementu gisa erabili beharko zen egun gutxi batzuetan, eta gero, haietako batzuek egin zuten bezala, askoz egokiagoak ziren beste baliabide batzuetara bideratu beharko ziren, hala nola La Sirena, Uba, Aldundiko beste aterpetxeetara.

gizona, 70 urte

Atano aterpetxeari dagokionez ere, gazteek ez dute intimitaterik, ez lasaitasunik, ez segurtasunik izan, ezta elikadura egokirik ere.

emakumea, 33 urte

Beste alde batetik, ondo funtzionatu zuten beste leku batzuk aipatu dituzte, hala nola Uba eta Sirena, non gazteak oso pozik egon baitira.

...Normalean turismoan aritzen diren bi udal aterpetxe ireki ziren: Uba eta Sirena. Bi ostatu hauek oso ondo egon dira. Han egon den jendea oso pozik eta oso gustura egon da.

gizona, 40 urte

Beno, ondo kudeatutako aterpetxeak..., oso ondo. Gero, buru-belarri egon diren hezitzaileak eta gizarte-integratzaileak kontratatu dira

emakumea, 50 urte

Gabeziak gabezia, eragileek konfinamendua gazte etorkinek aterpetxe batean plaza lortzeko aukera gisa ulertu zuten. Esan dute, gazteek konfinamendu-denboran egonkortasuna lortu zutela, leku berean lo egin ahal izan zutela, atsedean hartu, jan, pixka bat lasaiago egon, eta horrek fisikoki eta mentalki indarberritu zituela.

Jendeak susperketa fisiko eta emozionala izan du, denboran luzatu den neurrian. Hasieran zalantza eta beldur handiz zihozten. Baina gero gorputzak atsedean hartzen du, burua ere atsedenean dago, janaria duzu egunero, dutxatu egin zaitezke, ez duzu beldurrik, poliziak ez dizu eraso egiten. Orduan, horrek guztiak oso denbora gutxian hondatuta zegoen jende askori lagundu dio, hobekuntza izugarria izan baita.

emakumea, 50 urte

Gizarte-zerbitzuek pertsona horiek ikusaraztea lortu zuten, eta horrek diru laguntza ekarri zuen.

Alde batetik, batzuek esaten zuten 'kartzela bat bezalakoa da, baina gutxienez jan egiten genuen eta lasai lo egin genezake'... Askorentzat salbazioa izan da, gizarte-zerbitzu osoan sartu ahal izan direlako

emakumea, 33 urte

Beste alderdi positibo bat da gizarte-zerbitzuen, elkarten eta komunitatearen arteko koordinazioa lortu zela. Kasu batzuetan, gazteak beraiek ere beren artean koordinatzen ziren, elkarteek egiten zuten kudeaketa lagundu eta errazteko.

Nik administrazio politikoen arteko nolabaiteko koordinazioa berreskuratuko nuke, gazteen arteko koordinazioa elkarri laguntzeko, profesionalen artean gazteen beharrez ikasi genuena...

gizona, 27 urte

Beste alderdi positibo bat izan zen konfinamenduan ezarritako aterpetxeak eramateko egin ziren kontratazioak; izan ere, langile horiek migrante gazteekin lan egin zuten, egunero haiekin elkartuz, lagunduz eta eutsiz.

Beste alde on bat da, kontratatu diren hezitzaile integratzaile guztiak... pertsona horiekin lehenago egiten ez zen loturatik edo lanetik; izan ere, langile batek hilean ordu erdi ikusten badu gazte bat, ez du denborak ematen, ez du arduraz lan egiteko tarterik eskaintzen, eta baliabide ekonomikorik ez badu, ibilbide-orri bat egin norberak hobe dezan, ezinezkoa da hobetzea.

gizona, 27 urte

Konfinamenduaren amaieran baliabide horietan zeuden pertsoneri irtenbide bat aurkitu zitzaien. Batzuei diru laguntza eman zaie gela bat bilatzeko. Nire ustez, ez da nahikoa, ez baititute garraiorako eta elikadura-beharrak asetzeko izango, nahiz gelarako iritsiko zaien.

emakumea, 50 urte

Polizia gaiaz, adituak ados daude gazteek jasaten duten polizia-jazarpenari buruz. Jazarpen arrazista eta xenofobo gisa deskribatzen dute; izan ere, kolore eta arraza batekoa izateagatik bakarrik da susmagarria, delitu egiten aritzea.

Poliziak kolektibo horrekin egiten duen esku-hartzeak giza eskubideak erabat bortxatzen ditu, eta horrek maila desberdinetan eragiten die polizia guztiei, bai udaltzaingoari, bai autonomikoari, bai Polizia Nazionalari, bai Guardia Zibilari, esku-hartze arrazista sistematikoa dute.

gizona, 70 urte

Adibidez, elkarteek erabilitako telefonoak ematen dizkiete, gazteek familiekin eta gizarte-zerbitzuekin komunikatzeko aukera izan dezaten. Poliziak telefonoaren faktura eskatzen die, eta ez badute (bistan dena), konfiskatu egiten dizkiete; eta onartzen dute, lapurtu egiten dituztela, erosketa egiaztatzerik ez dutelako.

...Poliziak ez digu inori esango erosketaren ordainagiria non dugun. Hori sistematikoki egiten zaie gazte horiei, edo ustez dotorea den arropa mota jakin bat badute, lapurtu dutela pentsatuko dute, eta abar

gizona, 70 urte

Adituen arabera, poliziaren jazarpena betikoa da, alarma-egoeraren aurrekoa.

Beste arazo gehigarri bat polizia da, atzerritartasun-poliziarrena: bizileku-baimenik ez dutenez, jazarpen eta egozpen-aginduak ematen dizkiete, eta horrek ezinegon emozional izugarria eta beldurra eragiten diete. Askotan, ez dira eremu publikoetara sartzen, Tabakalera adibidez, beldurraren eraginez.

emakumea, 50 urte

Konfinamenduaren eraginez, ezin egon zitekeen kalean; ondorioz, polizia isunak jartzeaz gain, babesik ez zuten gazteak atxilotu egin zituen. Jazarpen horrek estres handia sortu zien aterpetxeetan tokirik ez zuten gazteei eta laguntzen saiatzen ziren eragileei. Konfinamendua igaro ondoren, egoera xaxatzaile honek bere hortan dirau. Eta adituen ustez, gazte migratzaileen kontrako giza eskubideen urraketa gisa har daiteke.

Horretaz guztiaz gain, kalean zegoen jendeak poliziaren jazarpena jasan behar izan du, kalean ezin zirelako egon eta batzuei isuna jarri zaie; beste batzuei, berriz, atxilotu ere egin zaie, beharbada behin eta berriz gelditu zaielako. Langile batzuk, gainera, atxiloteta baten lekuko izan dira, eta poliziari azaldu diote mutil hori kalean dagoela.

emakumea, 33 urte

Eta, gero, Ertzaintzaren polizia-jazarpenak batez ere, udaltzainenak baino maizago, etengabe jazartzen ditu marokoarrak izateagatik.

emakumea, 50 urte

4.3.2. Konfinatu ondoko balorazioa eta proposamenak

Konfinamenduaren ondoren eta ikuspegi handiagoz, eragileek positibotzat jo dute erakundeen eta gazteen artean sortu den elkarreragina, eta horrek lagundu eta motibatu egiten ditu.

Antolakundeek aukera ematen dute interakzio soziala izateko, bertako jendearekin harremanetan egoteko, hobeto integratzen laguntzen dute, eta ez bakarrik haien artean elkartzen. Oso gazteak direnez, gehienek oraindik energia eta borrokatzeko gogo handia dute.

emakumea, 33 urte

Ikaskuntza- lankidetz- prozesua izan duten aterpetxeetako jendearekin lan egitea oso positiboa izan da askorentzat, egonkortasun hobekuntzak ikusi direlako, erronka berriak hasi nahi izan direlako eta askotan baino entzunago sentitu direlako...

emakumea, 35 urte

Adin txikikoa izanik, borrokatzeko eta aurrera egiteko gogoia. Eragileek gizarte-inklusioko aukera handiagoa ikusten dute gazteak 18 urte bete baino lehen iristen badira, baldintzak gogorrek diren arren. Gainera, nabarmendu dute konfinamenduak praktikan erakutsi duela, borondatea izanez gero, Donostiako etxegabetasuna amai daitekeela.

Positiboena da adingabeekin egiten diren lanak; ikusitakoaren arabera, alde dago 18 urte beteta datozenen eta betegabe datozenen artean. Adingabeentzako sareak baldintza batzuk eskaintzen dituela uste dut, ez guztientzat bai askorentzat, baliagarriak izan daitezkeenak biharko egunean integratzen edo beharrak betetzen laguntzeko...

gizona, 27 urte

Alabaina, konfinatu ondoren aterpetxeak itxi egin ziren eta gazte batzuk kalera itzuli ziren. Kasu horietan, eragileek frustrazioa nabarmentzen dute, konfinamendua bukatuta, erakundeak aurreko sistemara itzultzen zirela eta ezikusiak sentitzen zirela konturatzean.

... dena edukizetik berriz ere ezer gabe geratzea zapuzgarria da, beharizan hori pandemia garaian bete daitekeela eta ez zaiela interesatzen jakitea. Horrenbestez, inpotentzia, amorrua, etsipena eta abar gailentzen dira.

emakumea, 25 urte

Gainera, koordinazio lana amaitu egin zen. Adituek esan dute dagoeneko ezin dela ahaztu gazte horiek bizi duten egoera eta kolektiboari laguntzeko berariazko programarik ez dutela.

Gipuzkoako kaleetan zero pertsona egotearen ameskeria amaitu egin zen, baita koordinazioarena ere. Nire ustez, ikusgarritasun indartsu horren ondorioz, jada ezin dugu beste alde batera begiratu, eta Gipuzkoako zerbitzuen mapa horri laguntza-programa zehatzak falta zaizkio, kolektibo honetako gazteei aukera hori kendu egin zaielako, lege desberdinek eraginda. Beraz, ezin dugu onartu gazte-belaunaldi batek honela bizitzen jarraitzea...

gizona, 55 urte

Erakundeek beste laguntza batzuk sortu dituztela aipatu bada ere, ehunen bat gaztek konfinamenduaren aurreko baldintza beretan jarraitzen dute eta ez da horientzako inolako laguntzarik aurreikusten.

Zoritxarrez, egoera gehiena ez dela aldatuko uste dut. Udalak eta Aldundiak beste baliabide batzuk sortu dituzte, baina baliabide horiek ez dira aski. Baina, tira... kalean ehun pertsona baino gehiago daude oraindik, baliabideetan ez zeudenak, sartu zirenak, baina gaur egun pertsona horientzat ez dago ezer aurreikusita.

gizona, 38 urte

Eragileek salatu dute polizia gazte horietako batzuk mehatxatzen ari dela, dauden lekutik kaleratzeko. Izan ere, urbanizagarritzat jotzen den lekua denez, saltzeko interes pribatuak daude, eta horrek polizia-indarren etengabeko jazarpena eragiten du, handik alde egin dezaten.

Horietako batzuk, gainera, beren lekuetatik ere kanporatzeko mehatxupean daude. Izan ere, horietako batzuk urbanizagarritzat jotzen diren eremuetan daude, eta, hain zuzen, higiezin horietako batzuen jabe diren enpresek orube horiek saldu nahi dituzte eraikitzeko. Beraz, beno, polizia-indarrek aldi berean behin egiten dituzten bisita horiek, kalegorrira bidaltzeko izango dira azkenean.

gizona, 70 urte

Eragileei aditu gisa eskatu zitzaizen bizi izandako osasun krisiaren ondoren jarraitu beharreko bidea proposatzeko. Adituek azaldu dutenez, lehenik eta behin, erakundeak elkarrekin koordinatu behar dira, lan-ibilbidea egin behar da eta hori etorkin gazteentzako baliabide errealetan gauzatu behar da.

Lehenik eta behin, benetako lan-eremu bat instituzionalizatzea, abian jarri behar diren baliabideen gainean. Bigarrenik, erakunde guztiak inplikatu behar dira, eta kasu honetan udalez ari naiz; izan ere, egia da, Gipuzkoan, tamaina ertaineko udalek baliabide bat jarriko balute, hamar edo hamabost pertsona artatuko lituzkeena, hau da, edozein baliabide ertainen tamainakoa, nahikoa baliabide izango genituzkeela kalean dauden ehundaka eta pertsona horientzat. Hirugarrenik, erabaki politiko bat hartu behar da. Eta erabaki politiko hori adierazten ditugun neurri hauetan islatu behar da.

gizona, 70 urte

Baliabide horiei esker, etorkin gazteak Atzerritartasun Legeak lanerako uzten ez dien denboraren zain egon litezke, modu duinean bizi beharko lukete, hau da, beren oinarri-zko beharrak beteta eta beren prestakuntzan eta gizarteratzean arduratuta. Adituek azpimarratzen dute pertsona horiek lanera etorri direla, ez laguntzetatik bizitzera, eta benetako aukera bat ematen bazaie, herriarentzako eskulan gazte eta erabilgarria izango dela.

Bilatu beharrekoa zera da: mantenua eta boterea duten bizitegi-baliabideak bilatu behar dira. Izan ere, Atzerritartasun Legeak, gure esku baino sistema zentralaren menpe dagoena, ez die lan-mundura hurbiltzeko erraztasunik ematen. Horrenbestez, hiru urte horietan pertsona horiei bizitza duina izateko modua bilatzea, hezte, gure gizartearen parte izatea, gurekin ikastea eta ekarpen asko egitea lortu behar da, ez baitira laguntzetatik bizitzera etorri, lanera baizik.

emakumea, 50 urte

Adituen ustez, gazteek laneratzeko eta gizarteratzeko lan-praktikak egin beharko lituzkete. Ondorioz, enpresek onurak lortuko lituzkete, egin litezkeen kontratu motekin; gerora gazteek horretan lanean jarraitzeko.

Era berean, ikasketetan trebatu ondoren, praktikak izatea bilatu beharko litzateke, enpresarentzat gastu handirik ez dakartenak, baina gazteak prestatzeko aukera ematen dutenak. Gerora, hurrengo urtean, praktika-kontratua egin daiteke, luzapen ordaindua izendatua. Enpresari komeni zaio, alde batetik, langile bat osatzen ari delako eta ez duelako gastu handirik egin behar; bestetik, "pertsona hori erregularizatzen denea, enpresan sartu ahal izateko" bermearekin.

gizona, 43 urte

Gainera, gizarte-zerbitzuetara sartzeko baldintzak antolatzea proposatzen dute eragileek, etorkin gazteentzako berariazko ibilbideak sortuz, haien emantzipazioan laguntzeko helburutan. Programa honen erdigunean gazteekiko lana jarriko da, modu integral batean. Hortaz, baldintza horiek ez zaizkie adingabe diren gazteei soilik eskainiko.

Nik proposatuko nuke larrialdietarako zein bigarren mailako laguntzarako zerbitzuetan sartzeko baldintzak ordenatzea. 18 eta 23 urte bitarteko pertsona guztiek berariazko tratamendua izatea, ez bakarrik tutoretzapean egon zirenek. Horrek gazteen emantzipazioari laguntzeko berariazko ibilbideak indartzea eskatuko du eta gazteak eta haien beharrak esku-hartze programen erdigunean jarri beharko ditu. Kontuan hartuz, kasu batzuetan, esku-hartze askoz integralagoa, biziagoa ekarriko duela, buru-osasuneko baliabideekin zein espezifikagoekin elkarlana eskatuz.

gizona, 55 urte

Eragileek azpimarratu dute gobernu zentralari Atzerritartasun Legea aldatzeko eskatu behar zaiola, gazte horien lan egiteko eta erregularizatzeko eskubidea sustatzeko.

Lanerako eta administrazio-erregularizaziorako eskubidea sustatzea. Eta gero, ikusi ditugun baliabide horiek egoki erabiltzea, dauden askotariko profiletara eta haien beharretara egokitzea.

gizona, 40 urte

Beraz, Atzerritarren Legeak aldatu behar du, lanpostu bat lortzeko aukera duenak, eskura dezan eta ezintasuna saihestu dezan. Eta 2, presazko eta berehalako neurri gisa, harik eta aipatutako legea aldatu arte, erregularizatzea litzateke. Nahiz eta hori erakunde autonomiko eta lokalen esku ez egon, eska dezatela.

gizona, 38 urte

Azkenik, adituek gizartea kontzientziazatzea proposatzen dute, gazte migranteak gure gizartean sar daitezen, bertako gazteekin egiten diren jardueretan parte har dezaten, beren bakardadea hobeto eraman ahal izateko.

Bada, nik uste dut gizarteak gehiago erraztu beharko lukeela prozesu hori; gehiago jarri beharko lukeela, gazte horiei espazioak eskainiz, parte-hartze handiagoa sustatuz, beraiek ez bezalako egoera batean bizi diren bertako gazteekin, haien sarea areagotuz eta babestuz bakarrik ez daitezzen gera. Zaila da talde batean sartzeta.....

emakumea, 25 urte

5

ONDORIOAK

5.1. Alderdi orokorrak

Txosten hau beste ekarpen bat gehiago da salatzeke 18 urtetik gorako etorkin gazte etxerik gabek bizi duten gizarte-bazterketa. Nahiz eta lagina mugatua den, emaitzek berresten dute kolektibo honen zati batek bizi duen ikusezintasuna, zeinen ondorio baita kalean bizi beharra, pobrezia muturreko adierazle (Navarro-Lashayas, 2018). Erroldatzeko zain, gizarte laguntzarekiko hitzorduak beteta eta laguntza eskaera eginda, Atzerritarren Legeak eskatzen duen 3 urteko egonaldia betetzen beren egoera erregularizatzeko eta lan baimena lortzeko... erabateko gizarte-bazterketa egoeran bizi dira. Oso bide luzea da, kasurik onenean lau urte ere irauz lezake, eta bitarte horretan arrisku faktore askoren menpe daude, zeinak saihestu zitezkeen kolektiboaren ezaugarriekin ondo egokitutako gizarte laguntza izango balute, gizarteratze bidean oinarritzko beharrak beteta, laguntza eta formakuntzarekin.

Egiazta daiteke kale-egoeran diren neska-mutil gazte etorkinen erdiak baino gehiago adingabe ez-lagunduak izan zirela, bere garaian Estatuaren babesean 18 urte bete arte eta ordutik aurrera kale gorrian utziak. Emaitzek diote gehienak gizonezkoak direla eta magrebtar jatorrikoak. Badira 18 urtez gorakoak ere eta beste hainbat herrialdeetatik etorritakoak, nola Senegal, Aljeria, Sahara eta beste. Parte-hartzaileen erdiak baino gehiago 18 eta 22 urte artekoak dira; horrek esan nahi du gehienbat nerabeei buruz ari garela eta Espainian bi urte baino gutxiago daramatzatela, administrazio egoera irregularrean edo/eta agiririk gabe.

Bigarren azterketan jasotakoaren arabera, nabarmena da hainbat udalerririk protokolorik ez izatea kale-egoeran dauden etorkin gazteak erroldatzeko, tramite ezinbestekoa baita oinarritzko prestazio batzuk lortzeko, nola osasun txartela eta, sei hilabetera, alokairurako laguntza eskatu ahal izateko. Egoera hau bat dator lehen azterketaren emaitzekin, non gazteek adierazten duten erroldatzea gauza zaila dela. Dena den, gazte gehienek erroldatzea lortzen dute, laguntza ematen dieten hainbat erakunderi esker. Gehienak Donostian daude erroldatuta, udalerririk horretan baitute eskura baliabide gehien.

Bi azterketek agerian jarri dute gazteen nahia lan ordaindu bat lortzeko. Halaz ere, lehen azterketak dio gazteentzat kasik inor ez duela aukerarik lan ordaindua lortzeko. Ondorioz, zailtasun handia dute bizitza irabazteko eta erakundeekin laguntzen menpeko ez izateko. Elkarrizketatutako gazteen bi herenek diru laguntza jasotzen dute administrazio publikotik edo bestelako erakunde batetik: Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzua (GLUZ), Caritas, Aldundia, Loiola Etxea, Peñascal eta beste. Batzuk eta beste jasotako diru kopuruan alde handiak egon daitezke.

Kale-egoerari dagokionez, elkarrizketatu guztiak egon dira kale-egoeran bolara batez, gehienentzako urtebetekoa. Egoera honek behartu egiten ditu etxerik gabeko jendearentzako diren baliabideak erabiltzera, baina baliabide hauek ez dira pentsatu gazte etorkinentzako, ezpada bertako jendearentzat, eskuarki adikzio arazoekin, adinekora eta nahiko egoera kronifikatua dagoena (Moreno & Fernandez, 2019). Beren neurri pentsaturiko baliabiderik ezean, beren egoera prekarioa larriagotu egiten da. Lehen azterketaren emaitzen arabera, aterpetxeak izan daitezke baliabide ona, lotarako lekua eskaintzen baitiete, baina hiru egunez soilik egon daitezke bertan. Nahiz eta gazteek

azken aukera gisara erabiltzen dituzten aterpetxeak (Moreno & Fernandez 2019), kasik laginaren erdiak aitortu du azken 6 hileotan erabili dituztela; datu horrek agerian uzten du gazte hauek ostatatzeke eta babesteko duten beharra.

Laguntzei eta haien kopuruei dagokienez, laginaren herenak ez du inolako prestaziorik jasotzen. Laginaren gainontzekoek prestazio bat jasotzen dute Administrazioaren edo eta gizarte erakunderen baten eskutik. Zehazki, gazte hauetako batzuek PEJO laguntza jasotzen dute, 600€ inguru, eta AES gisako laguntza, zeinek betetzen baitu gela baten alokairuaren %70 eta gehienez 250€koa dena; laguntza honek alokairu kontratu bat eskatzen du, beraz gazteak beste %30 ordaindu ahal dezakela ziurtatu behar du, eta hori oztupo bat da ezer ez daukatenentzat. Gela bat alokatzeko Udalaren gizarte laguntza gehienez 250€koa da, eta mantenurako 17€ inguru ematen ditu; hala, gazteek mantenturako jasotako diruaren parte bat usu alokairua ordaintzeko erabiltzen dute. Emaitza hauek argi adierazten dute gazte horiek, zorte onarekin, badutela alokairua ordaintzeko prestazioa, baina ez dute aski janaria, garraioa edo bestelako oinarritzko beharretarako. Horrela, zorteko izanda eta gela bat alokatu ahal badute ere, elikadura premia ez dute erakundeek betetzen.

Dena den, azterketa honetan parte hartu duten gazteen osasun egoera ona da. Arrazoa izan daiteke oso gazteak direla, eta bigarren azterketak dioenez, haietariko gehienak kirolariak dira. Ordea, aukerarik ez dute kirolean haien doainak garatzeko, ez baitago lekurik haientzako. Medikazio gutxi hartzen dute. Laginaren erdiak onartu du zehaztu gabeko substantziaren bat kontsumitzen duela, eta gainontzekoek alkohola, haxixa edo tabakoa kontsumitzen dute tartean-tartean; batzuek substantzia horietako bat baino gehiago kontsumitzen dute, eta maizago. Nahiz eta kale egoeran bizi diren pertsonak estigma jakina duten, esan dezakegu gazte etorkin gehienek ez dutela adikzio arazo handirik; are, bertako nerabeen antzekoa ere bada.

Bestalde, txosten honen bi azterketek baieztatzen dute gazteek polizia jazarpena nozitzen dutela. Lehen azterketak dio Ertzaintza eta Espainiako Polizia direla gehien jazartzen zaizkiena. Agiri eskeak, miaketak eta lapurreta presuntzioak dira gehien sufritzen dituztenak, lehena delarik ohikoena. Esan behar da emaitzetan jasota daudela poliziak egindako irainak eta erasoak. Bigarren azterketak nabarmen uzten du taldeak jasaten duen estigmatizazioa. Haiek eta haiek bakarrik geratzen dituzte kalean behin eta berriro, miaketak egiten zaizkie, sakelako telefono edo bizikleta bezalako zerbait badute, erosketa agiria eskatzen diete, eta bestela kendu egiten dizkiete. Egoera hau ez dute bizi herritar arruntek, eta adierazten du polizia indarren arrazakeria eta xenofobia, zeren eta beren ezaugarri fisikoak tarteko, marokoar izan edo antza emategatik poliziaren presuntzioa dago gauzak lapurtu egin dituztela.

Azkenik, bigarren azterketan jasotzen den egoera kezagarri bat nabarmendu nahi dugu: poliziaren jazarpenak eta kaleratzeak urbanizagarri diren eremuetan, hain zuzen enpresa pribatuek saldu nahi dituzten horietan; indar polizialak aldiro bertaratzen dira kanporatzearekin mehatxu egitera. Agintarie dei egiten diegu gazte hauentzako bizitegi irtenbide bat bila dezaten, ahal bezala dabilta eta babes bila.

5.2. Alderdi psikosozialak

Bi azterketek argi utzi dute gazte etorkinek, estalpe eta janari faltaz gain, erreferentziako pertsona heldua ere falta dutela haien garapenean gida lanak egiteko eta haien gizarteratzean laguntzeko. Erabateko basbesgabetasunean bizi dira, eta gehiegi eskatzen zaie. Bizirauteko aukera gutxi ematen zaizkie, eta baldintza horietan bide luzea egin behar dute gizarteratzeko, baina aldi berean eskatzen zaie gizarteratuta baleude bezala portatzea. Bertako adinkideek baino II urte lehenago emantzipatzera behartzen zaie (epsocial, 2020 abuztuak II), eta lanerako formakuntza eskasarekin. Testuinguru honetan, laguntza eta orientabidea ere falta zaizkie.

Lehen azterketak esaten du lagin honetako gazte gehienek familiekiko harremanari eusten diotela, eta erdiak baino gehiagok dio estimuan duela familiek urrutitik emandako laguntza; halaber diote konfiantzazko lagunak badituztela, hainbat bertakoak ere, baina gehienak talde berekoak dira, eta gutxiago estimatzen dute jasotako laguntzari. Ildo beretik, bigarren azterketan, lagun egiten dieten gizarte eragileek azaltzen dute gazte hauek bizi duten laguntza falta. Halaber, gazteek beraiek adierazten dute laguntza psikologikoa behar dutela, norbait hitz egiteko, maiz gizarte baliabideetara jotzen dutela nork entzungo dien bila. Ezin da ahaztu adin gutxikoak direla, nerabeak dira, orain denbora gutxi utzi diote haur izateari baina ez daude prest heldu izateko, ez baitituzte beharrezko tresnak. Erreferentziako pertsona heldu bat behar dute, laguntzaile eta gidari izan dadin beren nortasun indibiduala eta soziala eraikitzen.

Zentzu hotena, lehen azterketak adierazten du gazteek gizarteratze pertzeptzio eskasa dutela, konpainia falta, bakardade eta isolamendu sententzioa.

Ordea, gazteen erdiak baino gehiagok autoestimua handia du, nahiz eta baldintzak makurrak diren eta nerabezaroan autoestimua behera egiten duen (Robin & Trzesniewski, 2005; Ronins, Trzesniewski, Tracy, Gosling & Potter, 2002; Trzesniewski, Donellan & Robins, 2003). Beren buruaz duten iritzi ona indargunea da migrazio proiektuan eta bizitzan aurrera egiteko; erresilienteak dira ezbeharren aurrean. Ez alferrik, beren barne indarrak ekarri ditu honaino, bizimodu hobeko baten bila, eta maiz beraien familiei laguntzeko asmoz.

Lehen azterketen emaitzek diote gazteek balorazio ona egiten dutela beren prozesu pertsonalaz, herrialdera iritsi zirenetik gaurdaino, eta gaurko egoeraz galdetzen zaientean (konfinamenduaren ondorengoaz) are eta hobea da balorazioa, baina baita txarra ere. Honen zergatia da lagineko hainbat gazte kale egoeran zeudelako eta konfinamenduekin gizarte baliabideren batera joan ahal izan zirelako, non egonkortasunez bizi izan ziren eta fisikoki eta mentalki berrindartu. Baina beste hainbatek ezin izan zuen inolako baliabiderik eskuratu konfinamendu garaian, eta horregatik egoera makurragoa ikusten dute konfinamenduaren aurretik baino.

5.3. Kale egoeraren biktimenzako prestatutako baliabideen erabilera

Kale-egoeraren biktimak diren gazte etorkinek eskuratu ditzaketen baliabideei buruz, hauek ez daude diseinatuta kolektibo horrentzat (Moren & Fernandez, 2019), beraz ez datoz bat haien beharrekin. Horregatik dira gau aterpeak gazteen azken baliabidea; beren buruak eta arropak garbitzeko baliabideak ere ez dira nahikoak, ondorioz itxura txarra eman dezakete. Baina beste aukeren faltan, halabeharrez gehienek baliabide horiek erabiltzen dituzte. Gau aterpeen erabilera aldizkakoa izaten da, 6 hiletik 3 urte bitartekoa, eta laginaren erdiak erabili ditu azken bi urteotan. Azken datu honek erakusten du baliabide egokien falta. Eta hau azpimarratzen dugu, zeren laguntza egokituko balitz taldearen beharretara, baliabideak hobeki erabili eta gazteen egoera hobetuko litzateke.

Zehazki, emaitzek erakusten dute gehienek erabilitako baliabideak. Hauek dira Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzua (GLUZ), Caritas, Gurutze Gorria, SOS Arrazakeria. Parte-hartzaileen erdiak Aldundiaren eta bestelako erakundeen baliabideak erabili dituzte. Halaz ere, gehienek aipatutako laguntza baliabide bat baino gehiago erabili dute. Parte-hartzaileek hobekien baloratua Peñascal da, eta jarraian SOS Arrazakeria; balorazioa eskasena Aldundiarena da.

Parte-hartzaileek dauzkaten beharren artean, eguneroko janaria dago, zeina ez duten baliabide instituzionalek eskaintzen. Osasun arreta ere ez bide dute eskura; ondoren, arreta psikologikoaren beharra nabarmen ageri da bi azterketan, eta eskura dauzkaten baliabideek ez diete eskaintzen. Bestalde, laguntzaren beharra azpimarratzen dute gazteek, hizketarako norbait, eta izapide administratiboak egitera lagunduko dituen norbait. Halaber, gazteek diote lan bizitzarako behar duten formakuntza ez dagoela behar bezala beteta.

Bigarren azterketan ageri da gazteek ez dutela ulertzen eskatzen zaien guztia eta horregatik nahi izaten dutela laguntza izapide administratiboetan. Puntu hau bereziki nabarmentzen da, administrazioaren laguntza falta, zeren izapide administratiboak zail egiten zaizkie. Alta, lehen azterketan, galdetu zaielarik izapideak ulertzen ote dituzten, erantzun dute dena ulertzen dutela, hizkuntza badakitelako. Bestalde, azterketa honetan parte hartutako gazte gehienek esker ona adierazten dute jasotako laguntzarengatik, erdia baino gehiago lagunduta eta babestuta sentitzen da, eta kasik erdiak uste du baliabideek behar duten horretan laguntzen dietela. Kontrara, parte-hartzaileen erdiak dio batzuetan hitzorduetara agertzeak zentzurik ez duela, behartuta agertzen direla, maiz dirurik ez dutela garraiorako edo eta hitzordua ahaztu egiten zaiela.

5.4. Gazteen egoera konfinamendu bitartean

Lehen azterketako emaitzen arabera, gazte etorkinen egoera neurri batean aldatu egin zen konfinamendu bitartean. Gazteen kale egoera gutxitu egin zen konfinamenduen aurretiko. Gune okupatuetan ostatatzea ere arinki gutxitu zen eta gora egin zuen aterpeetako erabilerak. Aldaketa hauek gertatu ziren hainbat gazte kale egoeran zirenek tokia lortu zutelako konfinamendurako prestatutako lekuetan.

Bestalde, bi azkerketek jaso dituzte ebidentziak bizilagunek egindako kexuei buruz, eta laginaren erdiak kasik poliziaren arreta deiak jaso zituen kalean egoteagatik, ulertu ezin da gazteen kale egoera egiturazkoa dela eta ez aukera pertsonala. Lehen azkerketaren emaitzek diote arreta dei gehienak egindako poliziak Ertzaintza eta Udaltzaingoa izan zirela. Agiriak eskatzeaz gain, hainbat gazteri isuna jarri zieten kalean egoteagatik. Emaitza hauek adierazten dute konfinamendu garaian polizia indarrek ez zutela inolako protokolorik etxerik gabeko jendea artatzeko eta ez zeudela prest egoera horri aurre egiteko.

Halaber, emaitzek diote gazteen erdiek izan zutela COVID-19arekin lotutako sintomaren bat. Ordea, gutxi batzuek izan zuten arreta medikoa, eta horrek adierazten du etxerik gabeko taldeak jasaten duen abandonua, ez dena izan osasun krisi egoera honen ondorio, ezpada gizarteak oro har ahaztuta dauzkalako.

Kale egoeran dagoen jendearen eskura jarritako baliabideen funtzionamendu baldintzei dagokienez, bi azkerketek informazioa osatzen dute. Bigarren azterketak dio egokitutako aterperik txarrena Atanokoa izan zela, non gazteak ez ziren ziur sentitzen, soilai askotariko jendea nahastu baitzuten, hainbat oso hondatuak; lekua bera ere ez zen egoki antolatuta intimitate pixka bat eskaintzeko eta osasun segurtasun tarteak gordetzeko, beharrezkoa zena egoera horretan. Beste aterpe batzuk oso ondo ibili ziren, nola UBA eta Ondarreta aterpea. Lehen azterketak dio ezen hauetako baliabide bat eskuratu zutenak pozik zeudela baldintzekin, bazkariarekin, jardurekin, kideekin eta jasotako tratuarekin; bigarren azterketak informazio hau berresten du, zeren eragileek beraiek baieztatzen dute leku horietan egondako gazteen errekueraio fisiko eta mentala. Halaber, kontratatutako gizarte langileen ahalegin itzela nabarmentzen da, frogatu baitzuten gazteekin lan eginda, lagunduta eta babestuta, modu egokian egin daitekeela aurrera haien gizarteratze bidean. Alkohola eta tabakoa eskuratzeko zailtasunekin, aldiz, ez ziren konforme gazteak. Bestalde, gazte gehienek diote bolara honetan ez dutela haien gizarte sarea handitu.

Konfinamendu garaian bizitako emozioei buruz, pandemiak babesteko egokitutako aterpeetan lekua eskuratu zuten gazteek egonkortasun pixka bat lortu zuten, babestuta sentitu dira. Egunero jan eta dutxa hartu ahal izan dute, eta hori lasaitu bat izan da haien egoeran. Emaitza hauek bat datoz bigarren azterketako informazioarekin, zeinek dioen "gorputzak eta buruak atsedean hartu ahal izan dute". Arrazoi hauengatik, lehen azterketak emozio positiboak nabarmentzen ditu, nola diren alaitasuna, animoa, esperantza, esker ona; ildo berean, gehien aipatzen dituzten hitzak lasaitasuna, atsedena, dutxa, tratua, ohea dira.

Pandemiak eragindako ezohiko egoerak kutsatzeko beldurra sortu zuen laginaren erdia baino gehiagoren artean. Elkarrizketatutako gutxi batzuek izan zuten hiltzeko beldurra. Bigarren azterketak azaltzen du ezen kutsatzeko beldurraren aurrean batzuek erlijioan aurkitu zutela lasaitasuna.

Azkenik, lehen azterketako emaitzek diotenez, gazteek, nahiz eta egoera zail ikusi, uste dute aurrera egingo dutela, eta beren balio pertsonal eta gaitasunei esker gaudituko ditzutela datozkiekeen arazoak. Bestalde, erdiak baino gehiagok ziurtasun falta du zer etorriko den aurrerago. Emaitza hau bat dator bigarren azterketarekin, zeinek dioen hainbat gaztek ziurgabetasunez bizi dutela konfinamenduaren ondoren etorriko dena.

Amaitzeko, bigarren azterketan, adituen ikuspuntutik jarraibide bat azaltzen da osasun krisiaren osterako. Behar-beharrezkoa da Administrazioaren eta elkarteen arteko koordinazioa; lan lerro bateratu bat doitu eta gauzatu behar da neska-mutil gazte etorkinen beharrerataraz egokitutako modu eta baliabideak erabilita, haien emantzipazioa eta parte-hartze soziala sustatzeko, Atzerritartasun Legeak erregularizatzeko eskatzen dien denbora pasa bitartean baldintza duinetan bizitzeko, gizarte langileek lagunduta eta gidatuta. Etorkizunerako trebatuko dituen lan formakuntza prestatu behar da. Ez dezagun ahaztu gazte horiek lan egitera etorri direla, bizimodu hobea baten bila; gizarteari beren ekarpena egin diezaiekete, zeren eta gizarte osasuntsua nahi badugu, aukera berdintasunetik lan egin behar dugu, gure lurraldeko elkarbizitza soziala sustatuko duen parte-hartzeari atea irekiz.

6

EREFERENTZIAK

Alonso, C. (2020ko apirilak 7). Sin papeles, sin ayudas, sin comida. Noticias de Gipuzkoa. Nondik hartua: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/donostia/2020/04/07/papeles-ayudas-comida/1023365.html>

Arnoso, M., Manzani, L. (2014). Bienestar psicosocial en menores y jóvenes extranjeros sin referente familiar adulto: factores de riesgo y protección. *Norte de Salud mental*, 12(49), 33-45.

Campbell, J. D., eta Fairey, P. (1985). Effects of self-esteem, hypothetical explanations, and verbalization of expectancies on future performance. *Journal of Personality and Social Psychology*, 48(5), 1097-1111. doi: 10.1037/0022-3514.48.5.1097.

Carro, J. M. D. (2014). Políticas de servicios sociales para la atención a personas en situación de exclusión residencial grave. Elementos para un diagnóstico y propuestas estratégicas. *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria = Revista de servicios sociales*, (55), 35-46. doi: 10.5569/1134-7147.55.03.

Chico, A. (2020ko martxoak 17). Se habilitan 400 plazas en albergues de Gipuzkoa para reubicar a personas mayores, 'sintecho' y 'menas'. *Diario Vasco*. Nondik hartua: <https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/habilitan-plazas-albergues-20200316175114-nt.html>

Crocker, J., & Wolfe, C. T. (2001). Contingencies of self worth. *Psychological review*, 108(3), 593. doi: 10.1037/0033-295X.108.3.593.

Cuevas Martín, J. eta Manso, B. (2014). Imagen de la pobreza, pobreza de la imagen. Eu-topias. *Revista de interculturalidad, comunicación y estudios europeos*, 7, 55-70. Nondik hartua: <http://eu-topias.org/imagen-de-la-pobreza-pobreza-de-la-imagen/>

De la Iglesia, A. (2009). Los comportamientos "alarmantes" de adolescentes en la sociedad actual: ¿dónde nacen la violencia y las conductas antisociales de los y las adolescentes? *Revista de Estudios de Juventud*. 2009, 84, 47- 64.

Díez, E. R. (2007). Exclusión social: indicadores para su estudio y aplicación para el trabajo social. *Revista del Ministerio de Trabajo e Inmigración*, (70), 155-172.

Di Paula, A., eta Campbell, J. D. (2002). Self-esteem and persistence in the face of failure. *Journal of Personality and Social Psychology*, 83(3), 711-724. doi: 10.1037/0022-3514.83.3.711.

Dodgson, P. G., eta Wood, J. V. (1998). Self-esteem and the cognitive accessibility of strengths and weaknesses after failure. *Journal of Personality and Social Psychology*, 75(1), 178-197. doi: 10.1037/0022-3514.75.1.178.

Dumont, M., eta Provost, M. A. (1999). Resilience in adolescents: Protective role of social support, coping strategies, self-esteem, and social activities on experience of stress and depression. *Journal of Youth and Adolescence*, 28(3), 343-363. doi: 10.1023/A:1021637011732.

EMAKUNDE (2016) La exclusión residencial grave en la CAPV desde una perspectiva de género. Gasteiz: Emakunde-Emakumearen Esukal Institutua.

Europa Press (2020ko abuztuak 11). Los jóvenes tutelados se ven obligados a emanciparse 11 años antes que sus iguales, según Aldeas Infantiles SOS. *epsocial*. Nondik hartua: <https://www.europapress.es/epsocial/infancia/noticia-jovenes-tutelados-ven-obligados-emanciparse-11-anos-antes-iguales-aldeas-infantiles-sos-20200811153535.html>

Fairclough, N. (1992). *Discourse and Social Change*. Cambridge: Polity Press.

Ferreira, M. (2020ko martxoak 31). Los héroes de Otxarkoaga: un grupo de jóvenes magrebíes entrega comida a domicilio de forma gratuita a las personas mayores de un barrio de Bilbao. *eldiario.es*. Nondik hartua: https://www.eldiario.es/euskadi/otxarkoaga-magrebies-entregan-domicilio-bilbao_1_1221617.html

Gabàs, A. (2003). Informe sobre el fenómeno de la exclusión social. Indicadores de Género Contra la Exclusión Social. Barcelona: *Associació de Dones per a la Inserció Laboral*.

Humet, J. S., Carmona, R. G., & Torruella, J. B. (2005). Análisis de los factores de exclusión social. *Fundación BBVA*, 84-87. Nondik hartua: <https://www.fbbva.es/publicaciones/analisis-de-los-factores-de-exclusion-social/>

Instituto Nacional de Estadística (2013). Informe anual 2012. *Cifras INE*. Nondik hartua: <https://www.ine.es/>

Ives, E. (2014). La identidad del Adolescente. Cómo se construye. *Revista de Formación Continuada de la Sociedad Española de Medicina de la adolescencia*, 2(2), 14-18.

Marina González, P. A. (2018). Personas sin hogar y atención comunitaria. *Cuadernos de Psiquiatría Comunitaria*, 15(1). Nondik hartua: <https://aen.es/biblioteca-y-documentacion/publicaciones-de-la-aen/cuadernos-de-psiquiatria-comunitaria/>

Márquez, G. M., eta Aragón, I. F. (2020). Sinhogarismo y jóvenes extranjeros en Bilbao: la atención en un contexto de desbordamiento múltiple y secuencial de los recursos. *Zerbitzuan: Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria= Revista de servicios sociales*, (70), 61-70. doi: 10.5569/1134-7147.70.04.

Matulic Domandzic, M.V. (2013). Los procesos de exclusión social de las personas sin hogar en la ciudad de Barcelona. *Trabajo Social Global*, 3(5), 3-27. doi: 10481/30392.

Navarro-Lashayas, M. A. (2018). *Relatos de la Calle: Testimonios de Migrantes sin Hogar*, Madrid: Irredentos libros.

Navarro-Lashayas, M. A. (2013). El fin del sinhogarismo en Euskadi ¿mito o realidad? *Revista de servicios sociales*, (54), 111-125. doi:10.5569/1134.7147.54.07.

Navarro-Lashayas, M. A. (2014). Sufrimiento psicológico y malestar emocional en las personas migrantes sin hogar. *Revista de la Asociación Española de Neuropsiquiatría*, 34(124), 711-723. doi: 10.4321/S0211-57352014000400005.

Llano Ortiz, J. C. (2019). El estado de la pobreza. Seguimiento del indicador de pobreza y exclusión social en España 2008-2018. *European Anti Poverty Network*.

Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el Estado de Alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19 (2020). *Boletín Oficial del Estado*, 67, sec I, de 14 de marzo de 2020, páginas 25390 a 25400. <https://www.boe.es/boe/dias/2020/03/14/pdfs/BOE-A-2020-3692.pdf>

Robins, R. W. eta Trzesniewski, K. H. (2005). Self-esteem development across the lifespan. *Current directions in psychological science*, 14(3), 158-162. doi:10.1111/j.0963-7214.2005.00353.x.

Robins, R. W., Trzesniewski, K. H., Tracy, J. L., Gosling, S. D., eta Potter, J. (2002). Global self-esteem across the life span. *Psychology and Aging*, 17(3), 423-434. doi:10.1037/0882-7974.17.3.423.

SIIS Centro de Documentación y Estudios. (2019). *IV Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV 2018*. Gasteiz: Elan eta Gizarte Politika Departamendua. Nondik hartua: <https://www.siiis.net/es/investigacion/ver-estudio-novedad/545454/#>

SIIS Centro de Documentación y Estudios. (2015). *II Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV 2014*. Gasteiz: Lan eta Gizarte politika Departamendua. Nondik hartua: <https://www.siiis.net/es/investigacion/ver-estudio/347/>

Solanes Corella, Á. (2004). La realidad local de la inmigración: el padrón municipal como forma de integración. *Cuadernos Electrónicos de Filosofía del Derecho*, nº 10/2004. Nondik hartua: <https://www.uv.es/cefd/>

SOS Racismo (2020). *La atención a las personas sin techo en el Estado de Alarma. Buenas y malas prácticas*. Nondik hartua: <https://sosracismo.eu/informe-personas-sin-techo-y-estado-de-alarma/>

Tashakkori A, Thompson VD, Wade J eta Valente E (1990). Structure and stability of self-esteem in late teens. *Personality and Individual Differences*, 11, 885-893. doi: 10.1016/0191-8869(90)90268-V.

Trzesniewski, K. H., Donnellan, M. B., & Robins, R. W. (2003). Stability of self-esteem across the life span. *Journal of Personality and Social Psychology*, 84(1), 205-220. doi: 10.1037/0022-3514.84.1.205.

Jussim, L., Yen, H., & Aiello, J. R. (1995). Self-consistency, self-enhancement, and accuracy in reactions to feedback. *Journal of Experimental Social Psychology*, 31(4), 322–356. doi: 10.1006/jesp.1995.1015.

Veca, S. (1990). *Cittadinanza: riflessionifilosofichesull'idea di emancipazione*. Feltrinelli Editore.

